

# Izen sintagmaren egitura determinazioaren arabera<sup>1</sup>

JUAN JOSÉ ZUBIRI LUJAMBIO\*

## 1. SARRERA

O rain arte euskal izen sintagmaren<sup>2</sup> egituraren deskribapenez jardun diren lanetan edota puntu hau ukitu duten gramatiketan aurkitzen duguna, oro har, ondoan aipatzen ditugun hiru eremu hauen barnean koka daiteke:

a) IS nola eratzen den, hots, nolako egitura, segida, forma duen. Deskribapen hau ia gramatikari guztiek azaltzen dute eta gramatika guztietan agertzen da, gutxi edo gehiago, gaingiroki edo sakonago, hasi Larramendiren “El implosible vencido”-tik (1979 [1729]) eta gaur egungo gramatikalik xumeenera arte.

b) Zein osagai dituen. Oraintxe bertan aipatu berri den arloarekin oso lotura estua badu ere eta nahi izanez gero haren barnean sar badaiteke ere, aparte tratatzea merezi duela uste dugu Euskaltzaindiak bere “Lehen Urratsak” gramatiketan –bereziki (1991)ko alean– argikiro eskaintzen duen ISren osagaien proposamena. Bertan garbi aski erakusten da ISren barnean fun-

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi nizkieke hizkuntzaren jabekuntzan diharduten taldekide guztiei (Itziar Idiazabali, Andoni Barreñari, Maria Jose Ezeizabarrenari, eta abarri), haiei esker hasi bainintzen arlo hau jorratzen eta lehenbiziko burutazioei itxura pixka bat ematen. Eskerrak gai honetan aditua den X. Artiagoitiari lan guztia zehatz-mehatz irakurri ondoren egin dizkidan zuzenketa, iradokizun eta oharrengatik, zinetan lanaren hainbat zati ilun hobetzeko eta niri argitasun gehixeago emateko balio izan baitidate. Eta azkenik, eskerrak, halaber, P. Salaberri adixkide eta lankide finari, ordu eta orduetako eztabaida luze amaitezinetan buruhausteak elkarrekin jasateagatik, artikulua burutzen izandako kezka eta zalantza guztiak argitzeko prest egoteagatik eta bere laguntza guztia –eta ez da txikia– berak duen eskuzabaltasunarekin eskaintzeagatik (egia esateko, ‘Izen Sintagma Banandua’ izena bera ere nire lagun minari zor diot). Noizbait eta nolabait kitatuko dut denekin egindako zorra.

<sup>2</sup> Hemendik aitzina “izen sintagma”-ren laburduratzat IS erabiliko dugu.

tsezkoa den ardatz elementuaz gainera (izenaz edota izenordainaz gainera) zein osagarri har ditzakeen ardatz elementu honek (determinatzaileak, adjektiboak edota zenbait perpaus mota).

c) Ardatza eta bere osagarri hauen azaleko antolaketa baino gehiago sakoneko egitura nolakoa den. Batik bat Trasken (1983) eta Goenagaren (1991) lanak heldu zaizkigu gogora, non euskarazko hainbat IS aintzat hartuz hauen sakoneko egiturako hierarkia nolakoa den edo zein izan daitekeen eztabaiatzen den.

Beste maila batean kokatzen dira ISei buruzko ezaugarriak –hala nola, errekurtsibitatea (cf. *aldapeko sagarraren adarraren punta*), ISren luzatzea (cf. *uso zuri eder polit bat*), eta beste hainbat– aipatzen dituzten lanak, ezaugarri hauek ez baitira bereziki euskararenak bakarrarenak, orokorragoak baizik. Hein batean b) eta c) eremuetan ere antzeko zerbait gertatzen da: euskara aitzakiatako hartuz beste zerbait azaltzen da (osagaiak, sakoneko egitura,...), edo alderantziz.

Dena den, euskarazko IS dela eta, eremu batean zein bestean sartu, beti esan izan da –sarrixeago aipatuko ditugun salbuespenak alde batera utziz– IS batek, izatekotan, determinatzaile bat izan behar duela. Bat eta bakarra. Eta lege orokor bezala halaxe da: ia beti artikulua bakar bat edo zenbatzaile bakar bat topatzen da, aurreko lerromultzoko adibideetan agertzen den bezala. Edo gehienez, artikuluz (edo erakuslez) eta zenbatzailez osaturiko sintagmak aurki daitezke (cf. *nire lau lagun hauek*), baina ez sekulan klase bereko bi determinatzailez osatutako sintagmarik, hau da, bi artikuluz edo bi erakuslez edo bi zenbatzailez eratutakorik.

Hain zuzen ere lan honen arrazoia alde horretatik heldu da. Euskararen jabekuntzari buruzko azterketa bat egiteko datuak biltzen ari ginela (Zubiri 1997), elebakarrei bere gisa ateratako IS bereziekin egin genuen topo. Horrelako sintagma batzuk helduen ikuspuntuaren arabera okerrak ziren, eta gramatikaren arauen arabera okerrak dira (cf. *\*bestea tximeleta non da?*). Hala ere, huts hauek, eta honen antzekoak, jabekuntza prozesuaren parte dira eta denboraren poderioz desagertu egiten dira.

Baina beste IS sorta batzuk ere ediren genituen, guztiz bereziak, haien artean *handia zaldia non da?* esaldian agertzen diren modukoak. Harrigarriak eta bitxiak. Harrigarriak ziren, 2;05 (bi urte eta bost hilabete) adineko hizketan ikasten hasi berria den ume koxkor batek lasai-lasai botatzen zituelako; eta bitxiak, orain arte ISri buruzko deskribapenetan eman izan diren egituratetik at gelditzen direlako. Non agertzen da, bada, izenondoa izenaren aurretik doakeela, horrela, artikulua eta guzti? IS batek –IS batentzat jo badaiteske bederen– har al ditzake, kasu honetan bezala, bi artikulua? Hizkuntza mintzatuan esaldi hori eta horren antzekoak ez ote dira posible? Ez da ezagun ditugun arauen barnean sartzen, jakina, baina nor ausartzen da esaldi hori gaizki dagoela esatera? Arrunta, ohikoa ez dela, bai; baina hortik gaizki dagoela esatera, beharbada, burugabeki eta arinki samar jokatzeari litzateke. Gainera, pentsa daiteke haurra, helduaren gramatikara iritsi baino lehen, tarteko gramatika baten jabe dela, eta desbideraketa horiek bitarteko une horretako emaitzak direla. Baina kontua da goian aipatu ditugun bezalako esaldiak helduen ahozko hizkeran ere gertatzen direla. Orduan, zer? Arazo berarekin jarraitzen dugu.

Hori dela eta, esaldi mota horiek, eta horien tankerakoek, bide eman ziguten jabekuntzaren eremua baztertuxe utzita, euskararen ISren mataza –hasiera batean– korapilatsu eta nahasi horretatik hari punta bat hartu eta, batzuetan hemendik eta besteetan handik tiratuz, poliki-poliki itxuratu, zuzendu eta nolabait askatzeko.

Lan hau goitixeago aipatu ditugun hiru eremuetarikoren batean kokatzekotan lehenbizikoaren barnean sartuko litzateke, bete-betean ukitzen duen gaia ISren ageriko forma, azaleko egitura, deskribatzen duelako, baina ez orain arte bezalako ikuspuntutik, beste batetik baizik. Izan ere, ikusiko dugu, lanean zehar azalduko denez, badirela bi (edo gehiago) determinatzaile dituzten sintagma, badirela determinatzaile bakarra izan arren hitz ordena aldatzen duten sintagma, e.a. Honek denak, jakina, bide berriak irekitzera eta alde-aldeko proposamenak gitera bultzatzen gaitu.

Helburu nagusia, hortaz, goian aipatu diren bezalako sintagma mota horiek –eta horiekin erlazionaturik dauden beste zenbait– nolako egitura duten eta nola jokatzeko duten azaltzeaz gain, determinazioaren jokaeraren arabera nolako sintagma motak aurki daitezkeen agertzea da, mota guztiak besarka ditzakeen sailkapen osoagotu bat proposatzeko.

Horretarako, komenigarria iruditu zaigu historian zehar euskal gramatikarietarako auzi honetaz esan dutenari begiratu bat ematea, deus berririk edo informazio interesgarriak dakarten ikusteko, gutxien espero den unean edota lekunean ezustekoren bat topatzen baita, kasu honetan gertatu den bezala. Segidan, ISren ohiko egitura zein den iraztean azaldu ondoren, determinatzaileen agerpenari erreparatuz eta sintagmaren barneko elementuen ordenari begiratu, beste bi IS mota ere badirela frogatu nahi da: IS banandua eta hitzen ordena aldatua duten ISk; mota baten zein bestearen ezaugarriak desberdinak direnez gero, nola jokatzeko duten eta nolakoak diren azaltzen da hainbat adibideren bidez. Bukatzeko, esandako guztiaren halako laburbilketa bat-edo egiten da, ondorio nagusienak azalduz.

## 2. GAINBEGIRATU HISTORIKOA

Ikuspuntu historikoaren atal honen asmoa ez da mendeetan zehar inon ere agertu diren autore guztien gramatiken edo euskarari buruzko lanen azterketa sakona eta zorrotza egitea, ez eta gutxiagorik ere. Xedea askoz ere xumeagoa da: ISren gai honen inguruan gure gramatikarietarako iritzi diotenari buruzko axaleko hurbilpen bat egitea besterik ez, alde batetik, ukitzen ari garen gaia noiz hasi eta nola joan den azaltzeko, eta beste aldetik, nolabaiteko berrikuntzarik edo aurrerapausorik proposatu denean, zein, noiz eta nor egin duen jakinarazteko.

Ez dira euskalari guztiak edota gramatikari guztiak aipatuko, areago, sona handiko zenbait autore bazter batean geldituko dira. Ez da gure asmoa nahita inor alde batean uztea; eta hala gertatuz gero, barka biezagute hemen aipatzen ez direnek, inolako malizia txarrik gabeko asmoarekin jokatu da eta.

Ikuspuntu historikotik gainbegiratu bat ematen hasiz, ohar gaitzake ezagutzen ditugun lehenengo gramatikariek agertzen zaigula nola osatzen den euskal izen sintagma eta zein den honen ordena.

S. Pouvreau (1978 [1892]) dugu izen sintagmaren ('izenaren' dio berak) eraikiduraz mintzo zaigun lehenetarikoa XVII. mendearen erdi aldera idatzi-

tako lanean, noiz eta zein hitzetan kentzen den bukaerako *-a* (hots, artikulua edo *a* berezko duen hitza den) zehaztuz.

La mende bat beranduago, XVIII. mendearen lehen herenean, Larramendik (1979 [1729]) euskal gramatikari buruzko azterketa zehatzagoa burutu zuen, eta honela dio bere lanaren hasieran:

“Los nombres apelativos [arruntak],..., se suelen tambien declinar acompañados, y se rigen por los mismos articulos del nombre,...; por demanera que aunque se multipliquen los adjetivos, no por esso se multiplican los articulos, sino que uno basta para el regimen de todos, y esse siempre pospuesto al ultimo, v.g. *guizón edér, galant-á.*” (1979: 15).

Liburu honetan bertan, aurrerago, sintaxiaren alorra ukitzen duenean, izenek *-a* noiz galtzen duten azaltzen du (1979: 260-264). Berak dioena bi hitzetan laburtuz, inguru hauetan gauzatzen da ezabaketa: erakusleekin, zenbatzaile zehaztu eta zehaztugabeekin, *guzti* edo izenondoren bat doanean (cf. *guizón, emacumé, aur guciac etorri diré*), beti aurretik doazen *-en* eta *-zko* genitiboekin eta, azkenik, izenaren ondoren paratzen den izenondoarekin, honek beti numeroan eta kasuan komunztatu behar duelarik.

XVIII. mendearen azken aldian, Astarloa (1883) durangar apologista, ISren kontu hau dela eta, izenondoen jokaerara murrizten da gehienbat, eta sintaxiaren arloan honako hauxe dio:

“... Solo el bascuence es arreglado en esta sintaxis. Sus nombres siempre preceden a los epitetos. Decimos guizon-ona: ceru-ederra: ogui-zurija: echezabala (...). El más rústico bascongado despreciará con irritación las expresiones on-guizona: eder-zeruba: zuri-oguija: zabal-echia (...).” (1883: 758).

XIX. mendearen hasiera aldera Añibarro bizkaitarrak (1970: 16 eta 166), Darrigol lapurtarrak (1827: 44-46 eta 70 eta hurr.) eta lerroz lerro Larramendiri jarraitzen dion Lardizabal giputzak (1856: 55-56) aurrekoen bide berdintsuetatik jorratzen dute gure gaia, berririk deus gutxi gaineratzen dutelarik.

Beranduxeago, Gèze (1873) ere ildo bertsutik abiatzen da antzeko zerbait errepikatzen duenean:

“Lorsqu’un adjectif et le substantif auquel il se rapporte sont tous deux sujets ou tous deux régimes de la proposition, l’un des deux seulement, et toujours celui qui est le dernier, prend la préposition casuelle; l’autre est mis au radical, et quelquefois au nominatif dubitatif; ex.: l’homme bon, *gizoun houna*, eta non pas *gizouna houna*; mon fils, *ene semia*, et non pas *enia semia.*” (1873: 33-34).

Tamalez, ez du aipatzen partitibodun (“nominatif dubitatif” delako) adibiderik. Baina, oker ez bagaude, zerbait berezirik aurkitzen duen lehenbizikoa da, berak baieztatzen duenez *oro* ‘adjektiboarekin’ eraikitzen diren sintagmek ez dute besteek bezalako eraikidura, hauetan sintagmako elementu guztiek har baitezakete kasu atzizkia (cf. *gizon oro, gizonak orok*).

Urte batzuk geroxeago, ez du gauza orijinalik eta lehendik ere ezagutzen ez denik aipatzen Van Eys-ek (1883), beti ere gure arloari dagokionez, eta ‘sintagmako’ elementu guztietan deklinabide atzizkiak ez errepikatzea ekonomi kontuak diratekeela argudiatzen du bere lanean:

“Grammatical relation is expressed as economically as possible, only by the last word of sentence, so as not to express twice one relation; e.g. *zer gizonek esan dio?* ‘Which man said it?’ and not *zerk gizonek. Bere eche sainduan*, ‘in his holy house’, and not *echean sainduan*.” (1883: 45).

Lehenengo mendearen bukaeran eta honen hasieran Azkue euskalari handiaren lanak aurki ditzakegu. Lehenbiziko gramatikan, *Euskal-izkindea*-n (1891) ildo nagusiak ezarri bazituen ere, ekarpenik behinenak beranduxeago argitaratuko zen *Morfología Vasca*-n (1969 [1923]) utzi zituen. Hasierako lanean izenondoak (“langoginak”) izenarekin batera nola ematen diren agertzen du (1891: 142-44), eta aurreraxeago, joskeraren atalean, zehazten du lehendik esanikoa (1891: 296-300) bi arau zehatz emanez. Lehenbiziko arauaren arabera izenak eta izenondoak (bai eta izenak eta hainbat determinatzaile) “*batuta balegoz legez alkartuten daiz*” (298), esaterako, *gizon ederra, gizon eder bat, edozein gizon eder, gizon eder gutxik, gizon eder baten etxea*,... Bigarren arauaren arabera, aditz baten bidez (oro har, *izan* aditzaren bidez) lotzen direnean, bi hitz bezala hartzen dira; orduan, bai artikulua eta bai pluralgilea bieci erantsi behar zaizkie: *gizona ederra dai (da), gizonak ederrak daiz (dira)*.

*Morfología* lanean, berriz, perpauseko osagaien azterketa xeheagoa egiten du. Esku artean darabilgun egitura honetaz gehiegi ez bada jarduten ere, *ainitz, aski, gut(x)i, lar, naikoa*,... bezalako kantitatezko aditzondoez ari denean (Azkue 1969: 463) bi ohar egiten ditu: alde batetik, mota honetako zenbait aditzondok artikulua har dezakeela (cf. *askoak, laarra*,...); eta beste aldetik, bai kantitatezko zenbait aditzondok eta bai konparaketako beste zenbaitek aurreko izenari partitiboa (‘artikulu abstraktua’, bere hitzetan) harrarazten diotela (cf. *eskerrik asko, Jainkorik adina*,...), baina ez beti.

Schuchardtek (1949 [1923]) aurreko gramatikariei jarraituz dio sintagmako osagai desberdinek eratzen duten ‘multzoari’ itsasten zaiola deklinabide atzizkia:

“**Gizon bat.ek.** El sufijo no pertenece sólo a *bat*, sino a la expresión en conjunto. La repetición del sufijo, dominante en las lenguas arias, es extraña a la lengua vasca”. (1949:36).

Gavelek (1929) ere sintagmako elementu guztiek hitz bakarrak bailiran jokatzeko dutela jakinarazten du:

“Ainsi le basque semble agglutiner tous les éléments des expressions de ce genre pour n’en faire qu’un seul mot.” (1929:4).

Arau orokorra emateaz gainera, bi salbuespen nagusi aipatzen ditu: alde batetik *ber-* “adjektiboa”, eta bestetik guri interesatzen zaigun gaia bete-betean ukituko duen eta aurreago hizpidetako hartuko dugun izen sintagma banandua. Eraikidura mota hauetan hondarkia errepikaturik ager daiteke; esaterako, *ber-* “adjektiboak” latineko *ipse* erakuslearen esanahia duenean izena deklinatu egiten da eta *ber-* “adjektiboa” ere bai: ‘*etxean berean* egoiten da «il demeure dans la maison même»’ edo ‘*etxe hartarat bererat*’. Bi salbuespen nagusi direla aitortzen badu ere, lanean zehar han-hemenka barreiatu beste zenbait agertzen da, hala nola *oro* eta *guzti* zenbatzaile orokorrak, *gaixo* izenondoa, e.a.<sup>3</sup> Azpimarratu behar da gramatikari hau dela lan honetan

<sup>3</sup> Gavel (1929). Ikus 4-7 orr., 83-86 orr. eta 155-159 orr.

“izen sintagma banandua” izenarekin bataiatu den gertakari honezaz luze eta zabal mintzo den lehenbizienetako –lehenbizikoa ez bada– eta bakarrenetako bat.

Lafittek (1987 [1944]) ere honako lege orokor hau eman ondoren “*en basque l’adjectif se juxtapose au nom dont il est épithète pour former avec lui une sorte de mot composé dont le premier membre reste au nominatif indéfini et dont le dernier seul se décline, s’il en a besoin*” (119), salbuespentzat zein adjektibo har daitezkeen eta izenaren ezkerreko aiekan zein azal daitezkeen aipatzen du. Esaterako, ezkerreko lekune horretan *-en* eta *-ko* atzizkiak dituzten adjektibo bez gainera beste honako hauek ere aurki daitezkeela aitortzen du: nazionalitatea edo erlijioa adierazten duten adjektiboak (cf. *Eskual-Herria, girichtino legea,...*), *gaizo* (diminut. *gaicho*), *ezker*, *eskuin* izenondoak (cf. *gaicho gizona, eskuin beharrian*), e.a.

Gavelen ildo beretik jarraituz, izenondoekin eratzen diren itzuli bereziak ditu aipagai ondoren. Horrela, “*le basque se sert de la construction appositive pour mettre en relief un adjectif*” (122), eta honako adibide hauek paratzen ditu argigarri modura (beltzean emana gurea da):

- (1) a) **zaldi handi bat** bazeramaten ‘ils amenaient un grand cheval’.
- b) **zaldi bat handia** bazeramaten ‘ils amenaient un «grand» cheval (construction appositive).
- (2) a) sukalde horrek **jats-ukaldi on baten beharra** badu, ‘cette cuisine a besoin d’ un bon coup de balai’ (épithète).
- b) sukalde horrek **jats-aldi bat onaren beharra** badu, ‘cette cuisine a besoin d’ un «bon» coup de balai’ (apposition).

Guk izen sintagma banandua deitu dugunaren ereduak dira Lafittek aipatzen dituen hauek. Hala ere, (2)an azaldu ditugun adibideak direla eta, honako ohar hau eransten du: “*Dans ce dernier exemple on aura remarqué que on, bon, a été mis au génitif singulier et non à l’ indéfini: il a pris le cas de bat, un*”. Eta honela jarraitzen du: “*on rencontre du reste des constructions plus audacieuses encore. Ex. ‘gaitzak-eta igorri zauzkun aphairu hortan gezur batzu’, ou bien ‘gezur batzu igorri zauzkun aphairu hortan... gaitzak’, il nous lança au cours de repas de mensonges énormes*” (122). Horrelako hainbat esaldi zenbaitetan bihurri samarrak baina gramatikalak gertatzen badira ere, beste zenbaitetan, guretzat (2b)koa esaterako, gramatikaltasunaren mugan kokatzen dira. Dena dela, IS bananduz eta bereziki kasu marken jokaeraz aurreaxeago hitz eginen dugu astiroago.

Gugandik hurbilago, beharbada, Villasanteren (1978)ko lana dugu. Bertan, Axularren testuak oinarritzat hartuz, euskal sintaxiari buruzko hainbat hausnarketa eta iruzkin egiten da, Azkuek landu zuen bide bertsuetatik eta era klasikoan, hau da, kategoria bat edo kategoria-multzo bat hartu eta arruntean aurkezten dira; ukitzen dituen arloak honako hauek dira: izenarena, posposizioena eta, batez ere, izenondoena. Dena den, guri izugarri interesatzen zaigun arazo bat hartzen du hizgaitako: determinazioaren agerpenaren arabera hitzen kategoria nolako den. Hona zer dioen:

“... en vasco, con más frecuencia que en castellano, una misma palabra puede realizar funciones que corresponden a diversas categorías gramaticales, y a las que se halla uno perplejo a la hora de decidir a cuál categoría pertenecen algunos vocablos. Por de pronto, son muy abundantes en vasco los adjetivo-

adverbios, es decir, los adjetivos que se adverbializan. También en castellano se conoce este hecho. «Dale duro» *Eman gogor*. Pero en vasco es mucho más frecuente y común. *Bizi zaitetze zintzo eta zuzen... Ez dut garbi ikusten. Luze ez jo.* (135).

Eta pix-pixka bat aurreraxeago, aposizioaz diharduenean, hona zer dakarren gure IS bananduaz:

“Uno de estos tipos [de aposición] lo constituyen las aposiciones que esta autora [Geneviève N’ Diaye] llama de énfasis, o sea, que miran a realzar la importancia de lo que se dice: *Neskatx bat ederra. Laino bat izigarria*. En lugar de decir, al modo ordinario, *laino izigarri bat* «una niebla espantosa», se obtiene el efecto enfático poniendo el adjetivo *izigarri* como si fuera un sustantivo en aposición, yuxtapuesto a *laino bat* y provisto de artículo. Este procedimiento es muy usual.” (143-144).

Era grafikoagoan eta didaktikoagoan –eta euskara hutsez– baina beste-lako berrikuntza nabarmenik gabe, Txillardegik (1978: 9-16) aurkezten digu izen sintagmaren egitura nolakoa den. Laburpen antzean, eskema orokorra modu honetara eskaintzen du:

[Izenlaguna] + [Izena] + [Izenondoa] + [Atzizkia]  
 etxeko + andere + zahar + -a

Donostiarrak [Atzizkia] deitzen duen sail honen barnean sartzen ditu artikulua, erakusleak eta deklinabide atzizki guztiak. Eskema orokor hori proposatu ondoren xehetasunak lanean zehar ematen ditu, eta bai eta aipatu ere eskema horretatik ateratzen diren egiturak, esate baterako, zenbait determinatzaile izenaren aurretik agertzen direla, zenbaitetan izenlagunak izenaren ondotik joan daitezkeela, e.a.

Egia esan, Goenagaren (1980 [1978]) gramatika argitaratu arte ez dugu aurkitzen ‘izen sintagma’ izena bera<sup>4</sup>. Alde honetatik, izen sintagmaren egiturari dagokionez bederen, aurreko gramatikaren adinkidea den honek –hau ere euskara hutsez idatzia, Txillardegirena bezala– erabat bestelako ikuspuntua hartzen du, zeren Chomskyren gramatika sortzaile bihurtzailearen bide-tik jorratua baitago –teoria estandar zabalduaren ildotik, hain juxtu–, eta askoz ere azterketa zehatzagoa eta sakonagoa burutzen du xehetasun eta zehaztaperen gehiago eskainiz<sup>5</sup>. Hango guztia, dena batera, ekarri ezin dugunez, azaletik emanda bederik, hauek dira izen sintagmaren egiturari dagozkion erregela sintagmatikoak (1980: 383):

IS → (Izlg) + (Predt) + I + (mug)  
           P’ + IS  
           P’  
 Izlg → IS + erl.<sup>6</sup>

<sup>4</sup> Traskek (1983: 599) hitzez hitz honela dio: “Berandu samar sartu da kontzeptu hau euskal gramatikan (...); lan honetan Patxi Goenaga hasi zen lehenbizi, bere 1978.ko liburuan”.

<sup>5</sup> “Izen sintagmaren egitura” horrela deitzen dion kapituluari 61 orrialde eskaintzen dizkio guztira (cf. op. cit. 45-106).

<sup>6</sup> Laburdurak eta hauen esanahia:

IS: Izen sintagma  
 Izlg: Izenlaguna

Eskema honetan izenondoak ez dira sartzen (aparteko erregela eskaintzen dio “AdjS” Adjektibo Sintagma deituz), berez zenbait transformazioen bidez sortzen direlako, baina I-ren ordez IM (Izenaren Multzoa: izen + izenondo) para genezakeela iruditzen zaigu goiko eskemarekin erkatzeko eta, nolabait, osatzeko. Horixe da, hain zuzen ere, Trask-ek (1983: 599-611) aurkitzen duen hutsuneetako bat.

Jakina, egitura hierarkikoa duenez errekursibitatearen arabera erregela bera behin eta berriz aplikatuz ezkerretara gehiago luza daiteke izenlagun multzo handiagoa erantsiz (cf. *gure etxeko leihoa, aldapako sagarraren adarrraren punta, ...*), nahiz eskuinetara izenondoak gehituz (cf. *ate zahar gorri handia*). Mugatzaileari dagokionez, ikus daitekeen moduan, bakarra azaltzen da, sintagma guztia ixten duela, non eta behar ez duen (cf. izenordainak, pertsona eta leku izenak, mailegatuak, ...). Dena dela, izen sintagma gehientsuenek determinatzaile bat besterik ez izan arren, badira determinatzaile bat baino gehiago hartzen dituzten sintagma mugatuak ere (cf. *bi etxeak, hiru katuak, ...*), baina guri dagokigun gaiak, IS bananduak alegia, deus gutxi aipatzen da, nahiz eta hauek ere determinatzaile bat baino gehiago behar izaten duten.

Bestalde, esan behar dugu berezko izenlagunez gainera (cf. *-en, -ko, e.a.*) zenbait perpaus mota –erlatibozkoak eta konpletiboak, esaterako– goian azaldutako erregeletatik sor ditzakegula inolako arazorik gabe. Ikusiko dugu, batez ere, erlatibozko perpausak nola moldatzen diren banantzen ditugunean, oso erraz eta guk uste baino gehiagotan banantzen baitira.

Hortaz, erregela hauekin –eta labur zurrez hona ekarri ez ditugun baina Goenagak bere gramatika biltzen dituen beste zenbaitekin– euskarazko izen sintagma mota guztiak azaldu nahi dira.

Geroztik izen sintagmaren egitura bereziki aztertu eta eztabaidatu dutenak, besteak beste, Trask (1983), Rebuschi (1984) eta Goenaga (1991) bera izan ditugu. Gramatika sortzaileak eskainitako bideetatik izen sintagma konplexuen –eta ez hain konplexuen– sakoneko egitura zein den edo zein izan ote daitekeen aztertzen saiatzen dira autore horiek denak. Jaurtiki diren proposamenak eta agertzen diren arazoak interesgarri bezain korapilatsuak badira ere, ez gara gu sakoneko hierarkia horren nolakotasuna eztabaidatzen hasiko. Esan dugu gure helburu nagusia determinazioaren eta hitzen ordenaren araberrako sailkapena burutzea dela, ez besterik.

Esandakoaz gainera, azkenaldi honetan, izen sintagmaren inguruko gai hau dela eta, oso ikerketa zehatzak eta sakonak burutzen ari dira. Besteak beste, Zabala eta Odriozola (1992, 1994), Zabala (1999), Eguzkitza (1993, 1997) eta Artiagoitia (1998) ikerlarien ekarpenak ditugu aipatu beharrekoak. Lehenengo lanetan Euskaltzaindiak onartutako terminologia eta sailkapena paratzen da zalantzan gramatika kategoriei dagokienez; Eguzkitzak kasu marken edota posposizioen arazoa planteiatzen du; eta Artiagoitiak, behar-

Predt: Predeterminatzailea

I: Izena

Mug: Mugatzailea

P': Mendeko perpausa

erl: Erlazio hizkia



bada arrazoi guztiarekin, ohiko ISren analisiaren ordez Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia (DSH) defendatzen du gramatika sortzailearen ildotik doazen hainbat autoreri jarraituz.

Lan hau burutzeko, dena dela, nahiago izan dugu Euskaltzaindiak erabiltzen duen terminologia eta ikuspuntu 'klasikoa' aintzat hartu beste berriago hauek proposatzen dutena baino, alde batetik eroso egiten zaigulako, eta bestetik –bere berrikuntzagaratik ziur aski– oraindik txoil finkatugabea eta hedatugabea delako.

### 3. IZEN SINTAGMAREN EGITURA

Izen sintagmaren egitura nolakoa den azaltzeko, lehenbizi zein osagai eratu dagoen esan beharko da; eta lan horri ekinen diogu, irazean bederik.

Izen sintagmaren osagaien deskribaketari dagokionez, arestian esan bezala, batik bat Euskaltzaindiak azken urteotan burututako lanei lotuko gataizkie, zenbait ohar gaineratu beharrean baldin bagaude ere. Hori dela eta, esan behar da izen sintagmaren egituraren barnean hiru motako osagaiak aurki daitezkeela oinarrian (Euskaltzaindia 1985:54-55): ardatz elementuak, ardatzaren osagarriak (edota elementu atributiboak) eta determinatzaileak.

Sintagmaren ardatza osatzen duten elementu nagusiak izenak eta izenordainak dira. Ardatz elementuak –izenak berak dioen bezala, ardatz direnez– beti azalduko zaizkigu; kontua da euskarari, eta euskara bezalako beste hizkuntzetan, izenki hauek agerian egon beharrean zenbaitetan ezkutuan gordetzen direla edo gorde daitezkeela testuinguruaren edo beste hainbat aldagairen arabera, baina azalean edo ezkutuan, modu batean edo bestean, beti agertuko zaizkigula.

Ardatzaren osagarrien artean adjektiboak eta hainbat perpaus mota (erlatibozkoak eta konpletiboak) aurkituko ditugu. Komeni da, sarruxeago gartuko den lanaren argitako, adjektiboen artean izenondoak eta izenlagunak bereiztea; eta azken hauen artean batez ere interesatzen zaizkigunak (garrantzitsuenak ere horiek dirateke) *-en* eta *-ko* genitibo atzizkiez osatutakoak dira.

Determinatzaileen sailean, berriz, honako elementu hauek sartu ohi dira: mugatzaileak (artikuluak, *-ik* partitiboa ere hemen sartuko litzateke aurreago emanen ditugun arrazoiengatik eta erakusleak), zenbatzaileak (zehaztuak nahiz zehaztugabeak) eta, azkenik, determinatzaile zehaztugabeak.

Hortaz, hiru osagai horien jokaeraren arabera, hots, ardatz elementuen, osagarrien eta determinatzaileen jokamoldearen arabera hiru izen sintagma mota berezi ditugu lan honetan: 1.- Ohiko ordena duen izen sintagma, 2.- Izen sintagma banandua, eta 3.- Ordena aldatua duten elementuek osatutako izen sintagma. Azter ditzagun banan-bana zer-nolako esaldiak eta egiturak azaltzen zaizkigun euskaraz.

#### 3.1. Izen sintagmaren ohiko egitura

Goian Goenagak proposatutako erregelak direla eta, atzera harira itzuliz, kontuan hartu behar da izena parentesi artean ez dagoen arren, sintagmako ardatza izanik ere, askotan isil dezakegula, testuinguruak hala eskatuz gero. Hortaka, ardatza bera ere ez dugu beti derrigorrezkoa izanen izen sintagma osatzerakoan. Argudio hau erabiltzen du, esaterako, Artiagoitiak (1998) ISren

ohiko egitura alde batera utzi eta Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia proposatzeko.

Determinatzaileak izen sintagma osoa besarkatuz behin bakarrik agertu behar duela esan dugu, eta oro har, hala dela garbi dago. Baina, hala ere, badira arau hau hausten dituzten hainbat salbuespen. Seguruena ez dira adibiderik hoberenak, baina ezagunak dira egitura predikatiboetan agertzen diren edo ager daitezkeen artikulurik gabeko izenkiak (3-4). Badirudi horrelako esapideak, beste deusi baino gehiago, euskalkien erabilerari, hizkera motaren bati edo estilo zehatzen bati zor zaiola.

- (3) Ur hori *on* da
- (4) Neska hori *lodi* da(go)

Hain ezagunak ez izan arren, han-hemenka ediren daitezke jabetza-genitiboekin eraikitako determinatzailearik gabeko sintagma. Esate baterako, Axularrek zenbaitetan 'posesiboak' artikulurik gabe eta ondotik inolako izenik gabe ematen dituela (5) aipatzen du Villasantek (1978: 173); edo Sarasolaren (1996) hiztegian, batere nahi gabe, *ber* sarreran aurkitu dugun beste hau (6), edo Goizuetan trukean jokatzen ari diren emakumeei makina bat aldiz aditutako esaldi hau (7) bezalakoak ez dira uste bezain arrotzak, eta ez zaigu iruditzen, inondik ere, txartako hartu behar direnik<sup>7</sup>.

- (5) Ezta orduan *zure*. Aparta zaite bekhatutik eta izanen da *zure*.
- (6) Ala *juduen* ber da Jainkoa ala ez *jentilen* ere?
- (7) Lehenbikoa *gure*, bigarrena *zuen*.

Bestalde, izen sintagmaren ohiko egiturarekin jarraituz, lehenxeago esan dugu determinatzailea dela sintagma guztia ixten duen elementua. Baina gramatika-kategoria honekin batera agertzen diren kasu markak edo posposizioak ere behin bakarrik agertzen dira, hark bezalaxe sintagma guztia bilduz (cf. *urrutiko baso ilun beltz batean, txori txiki polit batzuekin,...*). Gaur egun artearainoko gramatikari guztiek diote, halaber Euskaltzaindiak bere lanetan, aipatutako deklinabideko kasu markak edo posposizioak itsasterakoan (*-en* eta *-ko* izenlagunenak alde batera utziz), izen sintagma osoak hartzen dituela atzizkiak eta ez, inguruko hizkuntza erromanikoetan gertatzen den bezala, osagaietako elementu bakoitzak. Ardatza beste osagaiekin edo isildurik aurkitzen denean ere hondarkia sintagma hersten duen hitzari gaineratzen zaio, unitate guztia besarkatuz (cf. *etorri diren azkenekoentzat, gure txikienarekin,...*).

Hondarkia, oro har, behin bakarrik agertzen bada ere, salbuespentako har daitezkeen adibideak *oro*, *guzti* eta *dena* zenbatzaile orokorrak ditugula esan behar, *bera* izenondoarekin (erakuslearekin?) batera. Jakina den bezala, hauek izenkiarekin batera deklinaturik ager daitezke aposizio moduan edo (cf. *gizonek orok, etxe hauetan denetan, etxean berean, etxetik bertatik,...*). Azpimarratu nahi dugu badela aitatu berrien era berdintsuan jokatzen duen beste izenondo bat, gaur egun baztertuxea, baina Goizuetan eta beste zenbait tokitan indarrarekin dirauena: *bakar* izenondoa, alegia. Hona adibide bat edo beste mostratako<sup>8</sup>:

<sup>7</sup> Caminok (1997: 377-378) Aezkoan bildu ditu antzeko adibideak. Eta Salaberrik aipatu didanez, Elkanoko Lizarragak ere erabiltzen ditu *-tzat* atzizkirik gabeko mota honetako destinatiboak; halaber, aurki omen daitezke Erroibarren eta Luzaiden, esaterako.

<sup>8</sup> Adibide gehiago aurki daitezke *Orotariko Euskal Hiztegia*-n, *bakar* sarreran, 740 or. Besteak beste, Orixeren zenbait eta Mitxelenak darabilen bat agertzen dira.

- (8) *Etxean bakarrean* ezin da egon  
 (9) *Saralegik bakarrek* jaso dezake harri hori

Ikus daitekeen moduan, eman ditugun esaldietan *bakar* izenondoa deklinaturik agertzen zaigu aurreko izenarekin batera. Deklinatu ordeztuz *bakarrik* forma ere erabil daiteke, dudarik gabe, baina orduan esaldiak bi balio izan ditzake: alde batetik goiko adibideetan ematen zaion zentzua hartzen du, hau da, lehenbiziko adibidean ‘etxean ezin da egon, baina gainerako leku guztietan bai’ eta bigarren adibidean ‘Saralegik jaso dezake harri hori, baina beste inork ez’, hau da, ‘Saralegik baizik ezin dezake harri hori jaso’; beste aldetik, *bakarrik* aditzondotako erabiliz ‘bakarrik, beste inor gabe, beste inoren laguntzarik gabe’ itzulinguruaren zentzua hartzen du; azkeneko era honetara ulertuz, honela ebaki behar dira: ‘*etxean / bakarrik ezin da egon*’ (beste norbait behar du, edo beste norbaitekin, aldiz, bai) eta ‘*Saralegik / bakarrik jaso dezake harri hori*’ (beste inoren laguntzarik gabe jaso dezake). Hondarreko adibide honetan Saralegik jaso dezake harria, baina beste batzuek ere bai, agian; (9)ko adibidean, ordea, Saralegi da harria jaso dezakeen bakarra, ez beste inor.

Dena dela, goitiago aditzera eman bezala, eta izen sintagmaren (edo determinatzaile sintagmaren) egitura nolakoa baita ere, segidan burutuko dugun azterketa ez da oinarritzen sakoneko egituraren hierarkiaren berri ematean edo zein elementu zeinen menpean dagoen zehaztean, ez eta ISren edo DSren hipotesia zalantzan paratzean ere. Bestelako ikuspuntu bat du lan honek. Hain zuzen ere, determinatzailearen agerreraren arabera eta sintagmako gainerako elementuen jokaeraren arabera nolako sintagma mota desberdinak izan daitezkeen sailkatzen saiatu gara.

Azkenik, amaitzeko, sintagma osatzen duten elementuen jokaera hori dela eta, euskarazko hitz ordenari dagokionez esan ohi da sintagmek ordena librea dutela gramatikaren ikuspuntutik, baina ez hain librea pragmatikarenetik (Osa, 1990; Hidalgo, 1996). Sintagmaren barneko elementuen ordenaz, aldiz, bestelakorik baieztatu izan da: ordena finkoa dutela edo aski finkoa. Gure lanean, ordena hori gehienetan nahiko finkoa izan arren, zenbaitetan aldatzen dela frogatu nahi dugu, batzuetan izen sintagma banantzeraino eta besteetan izen sintagmaren ohiko osagaien ordena aldatzeraino.

### 3.2. Izen Sintagma Banandua (ISB)

Hurrek etxetik euskara nola bereganatzen zuten aztertzen hasi ginenean, erreparatu ginen hauek botatako zenbait esaldi euskararen ikaste prozesu guztian zehar suertatzen diren hutsegite edo akats arruntak zirela helduen gramatika arauen ikuspuntuarekin alderatuz gero. Era honetakoak genituen, esaterako, aipatutako esaldi hauek:

- (10) Hau nirea etxea  
 (11) Hau behia itsusia  
 (12) Hemen bestea tximeleta

Honelakoetan errazena zen *izan* edo *egon* aditza ezabatu ondoren haurrak ez zuela izen sintagmaren determinazioaren araua ongi ikasi pentsatzea, egitura kanonikoaren arabera behin bakarrik paratu behar baitzaio determinatzailea sintagma osoari *nire etxea*, *behi itsusia* eta *beste tximeleta* emanez, eta

adibide hauetan, ikus daitekeen bezala, sintagmako elementu guztietara dago hedatua mugatzailea. Beraz, zilegi jotzen genuen –eta hala jotzen dugu–, euskararen ikas-prozesuko aro berezitako hartzea.

Baina arestian bildutako ekoizpen horiezaz gain, bestelako ordena erakusten duten ondoko hauen antzekoekin ere egin genuen topo:

- (13) Hau etxea nirea
- (14) Hau itsusia behia
- (15) Hemen tximeleta bestea

Aditza ezabatua egon daitekeela esateaz landara, orain arte azaldu ditugun egituretatik kanpo gelditzen dira ekoizpen hauek. Aipatutako adibideei dagokienez, Goenagari (1980) segituz, izen sintagmaren egitura arruntenak, salbuespenak bazter batera utziz, *Izlg.* + *izen* + *det.* edota *izen* + *izenondo* + *det.* direla esan badugu, nola azal ditzakegu horko ekoizpen horiek emandako erregelei jarraikiz? Edo okertako hartu behar ditugu? Baina oker baldin badaude, nola lirateke forma zuzenak? Areago, eman ditzagun corpusean aurkitu ditugun beste esaldi hauek:

- (16) Asko jotzen du soinua
- (17) Gorria ez al duzu txokolaterik?

Izen sintagmaren egitura kanonikora joz nola azter eta azal ditzakegu aditzaren alde banatan ekoiztutako (16)an zenbatzailea eta izena, eta (17)an izenondoa eta izena? Edo ez-gramatikaltako hartu behar ditugu? Izen sintagmaren zein egituratan sartu behar ditugu honako hauek? Argi dago, batez ere azken adibide hauek aintzat hartuta, izen sintagmaren banantze berezi bat suertatu dela esaldi horietan, itxura guztien arabera sintagma bakarretik sortuak baitira.

Baina nola edo zergatik suertatzen da toki-aldatze hau? Arazo honetaz zerbait aritu den bakanenetako bat, Guk dakigula, Gavel (1929:4-7) izan da. Honen ustez, ‘izen sintagmaren’ deskribapena burutzen duenean, arau orokorra hausten duten bi salbuespen nagusi ditugu: bata, *ber-* izenondoa dugu, goian aipatu bezala, deklinatu egiten baita izenarekin batera (cf. *etxean berean*); eta beste salbuespena hurrengo era honetara azaltzen du:

“Lorsqu’on pense une phrase il arrive souvent que tous ses éléments ne se présentent pas à l’esprit d’un seul coup, mais seulement les uns après les autres, et dans ce cas la phrase est conçue, pour ainsi dire, en plusieurs tranches. Or dans chacun de ces tranches, dans chacun de ces blocs de pensée, les règles de construction propres à la langue sont, instinctivement bien observées, en général, par la personne qui parle, mais il peut arriver que l’ensemble de la phrase soit boiteux et incorrect, parce qu’un élément, ajouté après coup, à la suite des autres, ne se trouve pas à sa place. (1929:5).

Beste hizkuntzetan ez ezik euskaraz ere antzeko gauzak gertatzen direla gaineratzen du, zeren euskararen egitura oso malgua eta librea baita. Autore honen iritziz, gainera oso arau ‘absolutu’ edo ‘ia absolutu’ gutxi ditu, hauetariko bi, izenondoa izenaren ondotik paratzea eta izenlaguna izenaren aurretik ezartzea direlarik. Baina arau hauek arrunt finkoak izanik ere, hauts daitezke:

“Mais il arrive souvent que dans l'improvisation du langage courant un adjectif qualificatif ou un génitif ne sont pas placés là où ils devraient être, parce qu'ils n'ont pas été pensés à temps, et sont, par suite, rejetés plus loin, en dehors de l'expression ou agglutination dont ils devraient faire partie; dans ce cas il arrive souvent qu'ils se déclinent:

Supposons par exemple, qu'on ait voulu dire: «Il y avait une grande fête très belle.» La construction normale en basque serait: *Ba-zen besta handi eta arras eder bat*. (...) Mais si l'idée exprimée en français par les mots *très belle* est pensée un léger retard, la phrase sera ainsi composée: *Ba-zen besta handi bat, arras ederra*. Dans la phrase ainsi construite l'adjectif qualificatif épithète *eder*, au lieu de se trouver à sa place normale, c'est-à-dire avant l'adjectif indéfini *bat*, qui serait en ce cas le seul mot décliné de l'agglutination, est rejeté hors de cette agglutination, mais il peut alors se décliner et prendre la désinence du nominatif singulier (...)” (1929:6).

Goiko esaldi hori beste era batera ere zati daiteke bere ustetan: *bazen besta bat, handi eta arras ederra*. Horrelako banantzeak, hau da, zegoen jatorrizko multzo horretatik abiatu eta bi zatitan emateak, haren iduriz, nahita egin daitezke astuntasun efektua sortzen duten ‘aglutinazio’ luzeegiak ekiditeko eta estilo arinagoa emateko.

Bestalde, zatitze mota horiek ez dira izenondoekin bakarrik suertatzen; izenlagunekin eta izenlagunen funtzioa bete dezaketen erlatiboetako perpausetan ere agitzen dira goian adierazitako banantzeak. Aipua luze samarra den arren, hona ekartzea merezi duela uste dugu:

“Mais pour des raisons diverses (retard dans le mouvement de la pensée, tel que ceux signalés plus haut, –désir d'attirer l'attention sur le génitif en le rejetant à la fin de la phase–, etc.), il peut arriver que le génitif ne se trouve pas à la place qu'il devrait occuper normalement, et soit rejeté plus loin. Dans ce cas, on met à profit la propriété qu'on tous les génitifs en basque de pouvoir devenir des noms ou des adjectifs par la seule adjonction des désinences ordinaires de la déclinaison, et on traite le génitif de la même manière qu'est traité ci-dessus l'adjectif *eder*; en d'autres termes, on le décline. (...)

... Seulement il est à remarquer qu'avec les génitifs ordinaires les rejets de cette sorte sont infiniment plus rares qu'avec les adjectifs, parce que ces génitifs ne donnent point lieu à des tournures compliquées et embarrassées. Mais ils se produisent souvent avec des expressions qui sont en réalité des génitifs; nous voulons dire avec les proposition relatives. (...)

...mais on conçoit que si la proposition intercalée était longue et surchargée elle-même d'incidentes, l'ensemble de la phrase serait embrouillé et lourd. En ce cas le rejet deviendrait nécessaire. Dans l'exemple que nous avons choisi [“*ezagutzen dituzuia Donibane Garazitik jiten diren Joanesen adiskideak?*”] ne s'impose nullement, mais il est possible néanmoins, surtout si la phrase est pensée avec une certaine lenteur, et l'on pourra dire, en marquant une pause après le premier élément décliné de l'agglutination, c'est-à-dire après *adiskideak*: *Ezagutzen dituzuia Joanesen adiskideak, Donibane Garazitik jiten direnak?* (1929:7-10).

Adibideak eta edukia iruzkindu baino lehen, azpimarratu nahi dugu Gavelek garbi ikusi eta aditzera eman zuela guk ‘Izen Sintagma Banandua’ (ISB) deitu dugun gertakari hau.

Zatitze honen arrazoi nagusia, batez ere, hizkuntza mintzatuan bilatu behar dugu; izan ere, hizketan ari garenean, zerbait presaka esan nahi dugu-

lako edo, ideia bat azkar bota nahi dugulako edo, esan nahi dugun hitza edo hitz multzoa behar den garaian eta ordenan ateratzen ez zaigulako edo, baliteke elementuen deslektutze hori ariera horrek eskatzen duen azkartasuna dela medio gertatzea. Beste zenbaitetan, ordea, arrazoi estilistikoak direla-eta zati ditzakegu, Gavelek dioen bezala ‘astun’ eta korapilatsu izan daitekeen estiloa sailhesteko.

Beste aldetik, zein hizkera motatan edo errejistrotan gertatzen diren aipatzen digu gramatikari honek, bere hitzetan: *“elle peut être tolérée parfois dans le tour un peu négligé du langage courant (dans toutes les langues il arrive que certaines règles admettent ainsi des dérogations dans la conversation familière ou dans l'improvisation rapide)”* (10), hizkera zaindua edota landua erabili nahi izanez gero, aldiz, era honetako zatitzeak baztertu egin behar dira. Baina horrelako gertakariak ez dira euskaran bakarrean suertatzen, gainerako hizkuntza guztietan ere aurki ditzakegu antzeko zatitzeak.

Azkenik, Gavelek ematen digun beste informazio garrantzitsua da zein hizkuntz unitaterekin gertatzen diren horrelako banantzeak. Bere ustetan, izen sintagmari gagozkiolarik, batez ere izenondoekin eta izenlagunekin (erlatibozko perpausak hauen barnean sartzen direlarik) jazotzen da. Ez zen ohartu, nonbait, beste zenbait zenbatzaile zehaztugaberekin ere suertatzen direla horrelako banantzeak.

Gure azalpenarekin hasi aitzinetik, hortaz, esan behar dugu bi hizkera maila nagusi bereizi behar direla begi-bistakoa den moduan: bata idatzia, eta bestea mintzatua, edo nahiago bada, xehetasun gehiegitan sartu gabe, hizkera landua eta landugabea. Bai lehenengoa eta bai bigarrena desberdinak dira, hein batean bederen, eta arau ‘desberdinez’ gobernatua dago. Hizkuntza mintzatuan gramatika-arau orokorrak hausten direla esan ohi da (perpaus ez-gramatikalak alde batera utziz, noski), eta egia da hausten direla, baina ez dira nolnahi egiten, beti arau jakin batzuk jarraituz baizik. Hiztuna, normalean, desberdintasun honetaz ongi jabetzen da eta bi ‘hizkera’ motak bereizten ditu; badaki, espreski galdetuz gero, senaz, bata bestea baino zuzenagoa datekeela eta hobeki esana dagokeela, baina hizkera mintzatuan bestelakoak itzuriko zaizkio. Honen ondorioz, eta bata bestearen isla denez gero, zenbaitetan, erregistro batetik bestera maiz oso zuzenak ez diren hainbat forma, egitura edota elementu irazten dira, ikusiko dugun gisa, baina horrelakoak gertatzen direnean arau jakin batzuk segituz gertatzen dira, izen sintagma bananduarekin (ISBarekin) jazotzen den bezalaxe.

#### a) Motak

Goian eman ditugun haurren adibideak eta Gavelek eskainitakoak ikusi ondoren, ISren egitura zalantzan paratu ez, baizik eta berplanteiatu eta, ahal den heinean, osatu egin nahiko genuke.

Gure hipotesiaren abiapuntua da ohiko egitura duen IS bateko osagaiak, hainbat faktore direla kausa, banan daitezkeela bi zatitan edo gehiagotan, eta zatitze hau gertatzen denean osagaiak ez direla nolnahi bereizten, baizik eta arau jakin batzuk jarraituz jokatzen dutela ‘zati’ horiek.

Guk batik bat hizkuntza mintzatua aztertu behar dugunez –idatziaren ardatza begi bistatik aldendu gabe–, baliteke emanen ditugun adibideak zalantzakotzat edo artifizial samartzat hartzea norbaitek, baina ez da atzendu behar ahozko hizkeraz ariko garela betiere.

Hariari helduz, ez gara Gavelek emaniko adibideekin azalpenak ematen hasiko –nahiz gero horietara itzuliko garen–, ez baitute argi eta garbi erakusten guk azaldu nahi duguna. Hortaz, halako deskribapen bat burutu dugu ISren banantze horiek ardatzaren osagarri desberdinekin eta zenbatzaileekin nola gauzatzen diren ikusteko. Horretarako, zazpi eremu bereizi ditugu atal honetan: 1) Izenondoekin osatutako ISBak, 2) Zenbatzaile zehaztugabeekin eratutako sintagmak, 3) *Nahiko* zenbatzaile zehaztugabearekin eraikitako sintagmak, 4) Zenbatzaile zehaztuekin osatutakoak, 5) *-en* eta *-ko* genitiboekin osaturikoak, 6) Erlatibozko esaldiekin emanikoak, eta azkenik 7) Neurria, pisua, e.a. azaltzen duten sintagmak.

Sailkapen honetan ikus daitekeen moduan *nahiko* zenbatzaile zehaztugabea zenbatzaile zehaztugabeen sailaren barrenean sar daiteke, baina aparteko lekua eskaini nahi izan diogu bere jokaera berezi samarra delako eta gaur egungo euskara idatzian nahiz mintzatuan erabilera, gure ustez, ezegoki dexente aurki daitekeelako. Bestalde, adierazi behar dugu hurrenkera hori erabili dugula argitasun metodologikoak –ez logikoak– direla medio, ez beste arrazoiengatik.

### *Izenondo osatutako sintagma bananduak*

Erka ditzagun, besterik gabe, ondoko adibideko hiru esaldiok:

- (18) a) *sari handia* irabazi du  
 b) *handia* irabazi du *saria*  
 c) *saria / handia* irabazi du


Lehenbiziko esaldian, a) adibidean, [*sari handia*] Iz. + Izondo. + art. segida duen ohiko sintagma arrunta aurkitzen dugu. Bigarrean, hizkera mintzatuan testuingurune egokian bota daitekeen esaldian, badirudi a)ko sintagmaren zati bati eman diogula indar berezia, *nolako?* galderari erantzun nahian-edo, galdegai izateraino iritsiz (izen sintagmaren barneko elementuen inguruan galdegaitasunaz eta mintzaigaitasunaz hitz egin badaiteke bederen), eta sintagmaren beste zatia aditzaren beste aldera bota dugula mintzagai edo tankerako zer bait bihurtuz. Hirugarrean, b)ko mintzagai bera hanpatuz emaniko esaldia genuke; hanpatze horren seinale tako paratu dugu marra-toxa, etena nolabait adieraztearren.

Dena dela, etenaren kontua oso eztabaidagarria da, zeren geldiune horrek erabaki baitezake elementu bat beste batekin aposizioan doan edo ez (hain zuzen ere, horrexegatik ez gara Gavelek emandako adibideekin hasi, berak eten garbiarekin –komarekin– bereizten dituelako bi zatiak). Hiztunak eten nabaria egiten badu, perpauseko beste zatiren bati erantsi diola esan nahiko du, hots, mintzagaitako hartzen duela eta hanpatu egin duela perpausaren aurreko aldera eramanez; beraz, aposizioan doala. Eta c) esaldian azken hau gertatu dela esanen genuke; agian, eten hori garbiago ikusten da beste modu honetara emanez gero: *Saria? Handia irabazi du*. Baina zer gertatzen da hiztunak geldiunerik egiten ez duenean? Ikus daitekeen moduan c) esaldian normalena etena egitea da, baina b)ko esaldia etenik egin gabe lasai-lasai esan daiteke. Nola aztertu eta azaldu behar dugu, orduan, b)n agertzen den bezalako esaldi bat? Galdegai/mintzagai joko beraren bidez? Izaten ahal da! Ez dugu bide hori bazterrean utzi nahi. Baina etenik egiten ez bada sintagmaren

elementu desberdinen artean sortzen den lotura estuagoa dela esan nahi du, eta sintagma ‘bakarra’ dela aitortzeko arrazoiak areagotu egiten dira.

Horregatik, (18)ko b) eta, agian, c) adibideetako esaldiak azaltzeko nahiago dugu beste hipotesi batekin lan egin, nahiago dugu ISBaren hipotesiak eskain ditzakeen bide berriak urratu.

Sintagmako osagaien bat ‘mugitu’ dela onartzen badugu, mugimendu horrek hainbat aldaketa sortarazi ditu. Hona nola irudikatzea gogoratu zaigun hasierako [sari handia] sintagmatik abiatuz:



Ikus daitekeen moduan *saria* izena atera da abierako sintagmatik, [ø handia] geldituz; gero, b) adibidean *saria* izena, determinatzailea hartuz, aditzaren beste aiekara igaro da, eta c)n, berriz, itxuraz izenondoaren ezker aldean kokatu da, baina hemen ere mugatzailea eta guzti. Hortaz, esan daiteke *sari* izenak, bere jatorrizko tokia utzi eta kanpora mugitu denean, ezinbestekoa duela sintagma osoari dagokion mugatzailea hartzea. Lehen esan bezala, etenik baldin badago mintzagai hanpatua genuke c)n, eta etenik ez badago sintagma horren aldamenen kokatu den izena genuke, berdin diolarik izenondoaren aieka batean zein bestean ezarri.

Dena dela, esan dugu –eta berriz azpimarratu nahi dugu– goian aipatutako c) adibideari bestelako azalpen bat ere eman dakiokela. Izan ere, bananduta dagoela esan beharrean, defenda daiteke, *saria* elementua perpau-sean inolako hutsunerik utzi ez duen perpauetik kanpoko topiko bat izan daitekeela esatea, eta [I handia] sintagmari dagokion izena, izen isila dela eta ez mugitutako izen baten aztarna dela esatea; beste modu batera azaltzeko, pentsa daiteke norbait sari batera aurkeztu dela, eta handia eman diotela.

Ohartarazi nahi dugu guk ‘atera’, ‘mugitu’, e.a. diogunean ez garela sintagmek duten perpau desberdinen adabegiz adabegizko mugimendu hierarkikoaz ari<sup>9</sup>, ez eta sintagma osoek perpau bateko beste sintagma osoekin duten mugimendu libreaz ere, baizik eta sintagma bakar baten barneko osagaiek duten mugimenduaz ari garela.


Orain arte singularreko adibideekin aritu bagara ere, ikus dezagun zer gertatzen den pluralekoekin:

- (19) a) *Begi ederrak* dituzu  
 b) *Ederrak* dituzu *begiak*  
 c) *Begiak / ederrak* dituzu

<sup>9</sup> Mota honetako mugimenduak euskaraz suertatzen diren edo ez jakiteko ikus, besteak beste, Salaburu (1987:65-79 eta 1991:927-946).



Azalpen berarekin jarraituz, honela irudikatuko genuke:



Oraingo adibide hauetan ematen du *begi* izena dela sintagmatik mugitu dena, eta kanpora ateratzerakoan –edo, hobeki esan, bananduta ematera-koan– mugatzaileaz gainera pluraleko marka ere hartu behar izan duela.

Jakina, orduan esanahia zertxobait aldatu egiten da. Esaterako, Lafittek (1987: 123) adjektiboez mintzo delarik, esaldi hauxe bera *begiak ederrak dituzu* ‘vous avez les yeux beaux’ bezala itzultzen du, eta *begi ederrak dituzu* ‘vous avez de beaux yeux’ bezala.

Beste ikuspuntu batetik azter daitezke (19) b) eta (19) c) esaldiak. Esan daiteke, Lafitteri jarraikiz, izenondoa izenaren atributo dela<sup>10</sup>. Eta egia da, hala izan daiteke. Estilo kontuak direla edo hiztunaren diskurtsoaren alde-rako inplikazio edo parte-hartze desberdinak direla-eta, euskaraz erraztasun handiarekin bihur daitezke *izan* aditzarekin eraikitako tankera honetako perpaus atributiboak:

(20) Euskal Herriko mendiak politikak *dira*

*nor-nork* motako esapide:

(21) Euskal Herriko mendiak politikak *ditugu*

Honelako esaldietan izenondoa izenaren atributotako hartu behar dugu, aditza besterik ez delako aldatu, eta gainera guk eskaintzen dugun azalpena ezinezkoa izan daitekeelako<sup>11</sup>. Baina (19) b) eta (19) c) esaldietan bi irakurketak egin daitezkeela iruditzen zaigu.

Alabaina, 19) bezalako esaldietan itxuraldatutako egitura kopulatibo bat dagokeela esan badaiteke ere, \**edun* aditzaren ordez beste aditz jokaturen bat agertzen den esaldiren bat emanez gero (cf. *begi ederrak ikusi ditut*, *begi ederrak izan nahiko nituzke*, e.a.), zalantza guztiak desagertzen dira, eta aurreko argudioetara gentozke berriro ere.

### *Zenbatzaile zehaztugabeekin eratutako sintagmak*


Izenondoekin osatutako izen sintagmak banantzen direnean nolako jok-  
era duten ikusi dugu arestiko adibideetan; ikus dezagun orain *izen* + *zenbat-  
zaile zehaztugabe* osagaiez eratutako izen sintagmak nola jokatzen duten, eta  
errepara diezaigun berriro ere determinatzaileen jokamoldeari:

<sup>10</sup> Honela dio Euskaltzaindiak (1993:129): “Dena dela, predikatu osagarria subjektua ez den izen sintagma bati dagokionean, mugatzailea behar dugula dirudi: *begiak ederrak dituzu*”.

<sup>11</sup> Adierazgarria da arrunt, baina forma alokutiboetan eta hiketan nahas daitezke bi adierak. *Begiak ederrak ditun* esaten denean, esaldi honek bi gauza adieraz ditzake 1.- ‘Begiak ederrak dira’, eta 2.- ‘Hik begiak ederrak ditun’ (gure irakurketa eginez, baita ere ‘hik begi ederrak ditun’).

- (22) a) *diru asko* irabazi du  
 b) *asko* irabazi du *dirua*  
 c) *dirua / asko* irabazi du

Lehenbiziko esaldian [*diru asko*] ohiko izen sintagma arrunta dugu. Bigarren eta hirugarren esaldietan elementu ber-berak ditugu, baina ordena aldatuta emanak agertzen zaizkigu. Hiru esaldi hauen artean dagoen desberdintasuna, ordena aldaketaz gainera, *diru* izenean agertzen den mugatzaileak markatzen du. Badirudi goiko (18) eta (19) esaldietan *sari* izenarekin gertatzen den bezala, hemen *diru* izenarekin gertatzen dela; hau da, [*diru asko*] sintagmatik abiatuz, era bananduan ematez gero, *diru* izena ateratzen dugula bere jatorrizko lekutik eta kanpora mugitzean sintagmari dagokion determinatzailea hartu duela, b) esaldian aditzaren beste aiekara igaroz, eta c) esaldian zenbatzailearen ondoan (baina artikularekin) geldituz. Grafikoki horrela irudika daiteke:



Berriz ere, etenaren arazoarekin egiten dugu topo. Baina sintagma mota hauetan etenaren kontua ez ezik, beste arazotxo bat ere gaineratzen zaigu: *asko* hitzaren kategoria zehaztea. Zein desberdintasun dago, zenbatzaile zehaztugabeari dagokionez, *horrek diru asko du* eta *horrek asko du dirua* esaldien artean? Ez du ematen halako diferentzia handia dagoenik bien artean, baina Euskaltzaindiak proposaturiko sailkapenaren arabera lehenbiziko esaldian agertzen den *asko* determinatzailetzat hartu beharko litzateke eta bigarren esaldiko zenbatzailea, berriz, aditzondotzat.


Horrela aztertu behar da ala, Gavelek liokeen bezala, zatituta emanik daude? Gure ustez, azkeneko argudio hau defendatzea izan daiteke azaltzeko beste modua, eta hauxe gertatu dena: hasierako [*diru asko*] sintagma banandu egin dela eta, jakina, banantzerakoan sintagmatik atera den elementuak dagokion hondarkia garraiatu duela berekin batera, kasu honetan *-a* mugatzailea, gero esaldian lekune batean edo bestean kokatu delarik galdegai/mintzagai joko delako medio.

Hemen proposatzen dugun irakurketa hau eginez gero, aski litzateke horrelako zenbatzaile zehaztugabeak determinatzaile soil direla esatearekin. Alde honetatik, bat heldu gara Goenagarekin (1980:83) tankera honetako esaldietan *asko* bezalako zenbatzaileak aditzondotzat hartzeko arrazoi sendo-egirik ez dagoela dioenean.

Orain arte singularreko adibideekin aritu bagara ere, pluralekoen jokabidea nolakoa den ikus dezakegu ondoko adibide hauetan:

- (23) a) *Galtza asko* dituzu  
 b) *Asko* dituzu *galtzak*  
 c) *Galtzak / asko* dituzu

Honatx grafikoki ISBaren arabera zer gertatu den:



Goiko (19)ko eta oraingo (23)ko adibideetan ipinitako esaldiak behatuz kontura gaitezke jatorrizko [*begi ederrak*] eta [*galtza asko*] sintagmetatik atera diren izenek artikulua eta pluralgilea hartu behar izan dutela bananduta ematekotan. Jakina, sintagmak singularrean ez, baizik eta pluralean daudenez, berez dituzten tasun hauek denak eraman dituzte haiekin batera: *-a* mugatzailea eta pluraleko *-k* marka.

Baina berriro *asko* zenbatzailea daraman sintagmara itzuliz, singularra den edo plurala den ikusteko ezin diogu sintagmari bakarrik begiratu, aditzari ere erreparatu behar diogu, honek emanen baitigu ezaugarri horren berri. Hori garbi ikusten da (24-25) adibideetan.

(24) *kafe asko hartzen du*

(25) *kafe asko hartzen ditu*

Batean zein bestean izen sintagmako ardatzak banantzekotan *asko hartzen du kafea* (edota *kafea / asko hartzen du*) eta *asko hartzen ditu kafeak* (edota *kafeak / asko hartzen ditu*) erara emanen genituzke, baina beti ere aditzak aginduko digularik sintagmak [+ singularra] edo [+ plurala] ezaugarria duen.

Orain arte batere aipatu gabe joan da, baina badago banantzeko beste modurik, edo bestela esateko, banantzerakoan osagaiak har ditzaketen beste formarik. Hain zuzen ere, *-(r)ik* partitiboa ekarri nahi dugu auzitara. Badi-rudi, jokaeraren aldetik ISBak ematerakoan artikulua (eta pluralgileak) bezala jokatzen duela. Esaterako, (26) esalditik abiatzen bagara:

(26) *lan franko badugu*

era bananduan ematerakoan, determinatzaileei begiratzuz, bi forma hauetara egin daiteke:

(27) *lana franko badugu*

(28) *lanik franko badugu*

Ez dugu esan beharrik (27)koaren aldaeratzat ematen ditugula *franko lana badugu* eta tankerako esaldiak, denetan izena baita abierako sintagmatik mugitu den elementua. (28)an ere izena da jatorrizko sintagmatik atera dena, baina kasu honetan *-a* artikulua hartu beharrean *-ik* partitiboa hartu du izenak. Erabilera honen arrazoia, seguru asko, partitiboaren jokamoldean atzeman beharko da. Era honetan azal daitezke *kaferik asko*, *lanik nahiko* (edo arau berak jarraituz ateratako *nahiko lanik*) edo jada ihartuta gelditu zaigun *eskerrik asko* bezalako ISak.

Zenbatzaileekin eratutako sintagma hauek badute gainera beste ezaugarri bat: partitiboaren atzizkia har dezaketela ondoko adibideetan paratzen dugun moduan:

- (29) *lan frankorik* badute  
 (30) *ez du kafe askorik* hartzen

ISBaren teoria honen arabera, hurrenez hurren (26)ko eta (24)ko sintagmetatik abiatuz sortuko lirатеke:

- [lan franko] → [lan ø] frankorik  
 [kafe asko] → [kafe ø] askorik

Adibide hauetan sintagmatik mugitu den zenbatzaileak *-a* artikulua hartu beharrean *-ik* partitiboa hartu du. Zergatik gertatzen da hori? Edo zenbatzaile batzuk zergatik hartzen dute errazago partitiboa beste batzuk baino? Euskararen edota euskalkien gorabeheri –azken finean, erabilerari– begiratu behar.

Azalpena haruntzaxeago eramanez, pixka bat gehixeago korapilatu eta bihurritu daiteke nahi izanez gero; zeren atera al daitezke bi elementuak (izena eta zenbatzailea, biek batera) hasierako sintagma horretatik? Atera badaitezke zein determinatzaile garraiatu behar dute berekin? Ateratako bi elementuek har al ditzakete determinatzaile diferenteak? Galdera hauei denei erantzuten saiatuko gara ondoren, *nahiko* zenbatzaileaz jardutean.

**“Nahiko” zenbatzaile zehaztugabearekin eraikitako sintagmak**

Formari begiratu, badirudi *nahi* + *-ko* atzizkiarekin osatua dagoela zenbatzaile hau, horrela onartu du gainera Euskaltzaindiak, eta ez artikulua-rekin Azkuek (1969: 463) zioen bezala. Villasante (1978: 233-234) honetaz ohartu zen:

“Dice Azkue que se usa siempre con artículo singular y exige que la palabra a que se agrega lleve también su artículo; y que se pospone siempre. *Mutilla nahikoa* «bastantes muchachos» o también *gizonik nahikoa* «bastantes hombres»; pero es preciso confesar que hoy al menos no se guarda siempre esta regla”.

Aipatutako *-ko* atzizki honekin eratutako osagaiak, oro har, izenaren ezkerreko aiekan kokatzen dira (cf. *etxeko leihoa*, *aspaldiko ezaguna*,...), baina zenbaitetan izenaren eskuineko aldean ere para daitezke (cf. *Maritxo Torrekoa*, *helburu oinarrizkoak*,...). Zenbatzaile hau ere bi lekune horietan aurki dezakegu, zeren batzuetan izenaren aitzineko aldean topa baitaiteke (31), eta besteetan izenkiaren gibleko aldean (32).

- (31) *nahiko lan* (ba)dugu  
 (32) *lan nahiko* (ba)dugu

Orain arte proposatutakoa kontuan izanik, sintagma zehatz hauetan, hots, [*nahiko lan*] eta [*lan nahiko*] sintagmetan atera daitezkeen elementua izena da berarekin batera artikulua hartuz. Beraz, (31)ko adibidetik abiatuz, bi aukera hauek ditugu:

- a) [*nahiko ø*] *lana* (ba)dugu  
 [*nahiko lan*] (ba)dugu /  
 \ b) *lana* [*nahiko ø*] (ba)dugu

Baina kontua da izena ez ezik, *-ko* atzizkiarekin osatua dagoen zenbatzaile hau ere izan daitekeela sintagma horretatik atera daitekeena –sarrixeago genitiboen jokaera azaltzen dugunean xehetasun gehiago emanen dugu honezaz–. Horrela, mugitzen den elementuak sintagmari dagokion artikulua hartzen badu, (31)ko adibide berarekin jarraituz, beste bikote hau ateratzen zaigu:

- a) [ $\emptyset$  lan] nahikoa (ba)dugu  
 [nahiko lan] (ba)dugu /  
 \ b) nahikoa [ $\emptyset$  lan] (ba)dugu

(31)ko adibidearekin egin dugun bezalaxe, (32)koarekin ere ber gauza egin daiteke. Izena kanporatuz horrela gelditzen dira:

- a) [ $\emptyset$  nahiko] lana (ba)dugu  
 [lan nahiko] (ba)dugu /  
 \ b) lana [ $\emptyset$  nahiko] (ba)dugu

Eta zenbatzailea ateraz, beste bi hauek:

- a) [lan  $\emptyset$ ] nahikoa (ba)dugu  
 [lan nahiko] (ba)dugu /  
 \ b) nahikoa [lan  $\emptyset$ ] (ba)dugu

Ikus daiteke bai (31)ko adibidetik bai (32)kotik abiatuz sortzen diren esaldiak, jatorrizko sintagmatik ateratzen diren elementuak zein baitira ere, itxuraz bederen –edo hobeki ulertzeko, azaleko forman bederen– berdintsuak direla, nahiz eta mugitzerakoan utzi duten ‘hutsunea’ desberdina izan.

Aurreko esaldietan aditzak adierazi digu sintagma singularra dela, baina suerta dakiguke pluralean egotea, *kafe asko* sintagman ikusi dugun legez (33-34).

- (33) Nahiko lan *baditugu*  
 (34) Lan nahiko *baditugu*

Orduan, eman ditugun arauak jarraituz, banantzen direnean, izenak edota zenbatzaileak jatorrizko lekutik mugitzen baldin badira sintagmako ezaugarriak garraiatu behar dituzte berekin batera. Singularrean bezala, zortzi banantze posible dira bi esaldi horietatik abiatuz sor daitezkeenak, baina laburtzarren laura murriztu ditugu (azken finean, formari begiraturaz, lau hauen itxura bera hartzen dute eta; baina kontuan izan “iturri” desberdina dutela).

- a) [nahiko  $\emptyset$ ] lanak (ba)ditugu  
 /  
 / b) lanak [nahiko  $\emptyset$ ] (ba)ditugu  
 [nahiko lan] (ba)ditugu / /  
 \ \ c) [ $\emptyset$  lan] nahikoak (ba)ditugu  
 \  
 \ d) nahikoak [ $\emptyset$  lan] (ba)ditugu

Oroitarazi nahi dugu banandutako osagaiak, behin hasierako sintagmatik mugituz gero, aditzaren beste aiekara ere igaro daitezkeela (cf. *nahikoak baditugu lanak*, *lanak baditugu nahikoak*).

Singularreko eta pluraleko aukera hauetaz guztietaz gain, ez da atzendu behar *[nahiko lan]* sintagma honetatik ateratzen diren elementuek *-ik* partitiboa ere har dezaketela. Hortaz, beste aukera hauek ere baditugu:

- a) *lanik [nahiko ø]* edo *[nahiko ø] lanik*  
*[nahiko lan]* (ba)dugu /  
 \ b) *[ø lan] nahikorik* edo *nahikorik [ø lan]*

Jakina denez, partitiboa daraman sintagmak singularrekoa izan behar du nahi eta nahi ez (cf. *\*jende askorik ikusi ditugu*, *\*lanik franko aurkitu ditugu*, e.a.). Beraz, zenbatzaile honekin ere ez dago aditza pluralean paratzerik (cf. *\*lanik nahiko baditugu*, *\*lan nahikorik baditugu*, e.a.).

Beste tasun berezi bat badute zenbatzaile hau daramaten sintagmek: bi osagaiak atera daitezkeela jatorrizko multzotik. Hau zergatik gertatzen den esateko arrazoiak ez ditugu arrunt garbi ikusten, baina, beharbada, zenbatzaile honek mugatzailea hartzeko duen erraztasuna eta duen mugikortasun handia dirateke arrazoiak. Hortaz, bi elementuak sintagmatik atera ondoren gelditzen zaizkigun aukera guztiak, laburtuz, ondoko hauek dira.

- [nahiko lan]* (ba)dugu → *lana [ø ø] nahikoa* edo *nahikoa [ø ø] lana*  
*[nahiko lan]* (ba)dugu → *lanik [ø ø] nahikorik* edo *nahikorik [ø ø] lanik*  
*[nahiko lan]* (ba)ditugu → *lanak [ø ø] nahikoak* edo *nahikoak [ø ø] lanak*

Ez dakigu zein neurritaraino erabiltzen diren (edo erabiliak izan diren, edo erabil daitezkeen) *nahikoak lan (ba)ditugu* edo *nahikorik badugu lanik* edo *lanik frankorik* bezalako sintagmak, baina badirudi itxura guztiaren arabera posible direla, eta ontzat hartzeko modukoak direla hipotesi honen barrenean behintzat. Hobeki aztertu beharko litzateke horrelako ISBak zein zenbatzaileekin eta nola gertatzen diren, hipotesi honek ahalbidetzen dituen konbinaketa posible guztiak aurki ote daitezkeen (edota gramatikalak ote diren), zergatik zenbatzaile batzuk errazago eta maizago banan daitezkeen, eta beste hainbat gauza.

Berriro harira itzuliz, *nahiko* zenbatzailearen edota izenaren banantzea aintzat hartuz eta sintagma singularra nahiz plurala izan daitekeela kontuan edukiz, ikus daiteke ia konbinaketa guztiak direla zilegi. Arau hauen ondorioz sortzen ez diren bakarrak honako hauexek ditugu (35-36).

- (35) *\*lanak nahikoa* edo *\*nahikoa lanak*  
 (36) *\*nahikoak lana* edo *\*lana nahikoak*

Begi bistan denez, ezinezkoa da, ikuspuntu honetatik begiraturaz (nahiz literatura idatzian horrelakoak idoro daitezkeen), sintagma bereko osagai batek singularreko tasuna hartzea eta besteak, berriz, pluralekoa; sintagmak berez edo singularra edo plurala eskatzen baitu, ez biak batera.

Baina atzera lehengo puntuaren bukaeran zintzilik utzi ditugun galderei ekinez, ikusi dugu gerta litekeela jatorrizko sintagmatik mugitzerakoan atera diren bi osagaiak artikulua edota pluraleko marka hartzea, baina posible ote da batek artikulua eta besteak partitiboa hartzea? Posible ote dira ondoko (37-38) adibideak? Zuzena ote da hiru urte bete ez dituen harrak botatako (39) esaldia?

- (37) ??nahikoa lanik  
 (38) ??lanik nahikoa  
 (39) ??gorria ba al da txokolaterik?

Egia esateko, ez dirudite oso bidezkoak. Ikuspuntu teorikotik begiraturaz, ez du ematen bi determinatzaile<sup>12</sup> desberdin erabiltzea zilegi den, azaldu ditugun beste arrazoi batzuegatik, (35-36) adibideak ematea zilegi ez den bezalaxe. Horrela bada ere, aurreraxeago ikusiko dugu zer gertatzen den beste banantze motetan.

Bukatzeko, aipatu behar dugu orain arte ISekin aritu gara goian-behe, eta banantze hauek ISekin soilik gertatu ohi direla, ez (40-41) bezalako beste sintagma motekin.

- (40) nahiko ongi → \*nahikoa ongi  
 (41) nahiko nekatuta → \*nahikoa nekatuta

Adberbio sintagmek, jakina denez, ez daramate inolako determinatzaile-rik, beraz, ez dagoen tokitik ezin hartu ez mugatzaile-rik (edota pluralgilerik) ez partitiborik<sup>13</sup>.

### *Zenbatzaile zehaztuekin osatutako sintagmak*

Zenbatzaile zehaztuekin eratutako sintagmak ere banan daitezke. Begira Villasantek (1978: 143-144) nola azaltzen digun gertakari hau:

“Uno de estos tipos [de aposición] lo constituyen las aposiciones que esta autora [Geneviève N’Diaye] llama de énfasis, o sea, que miran a realzar la importancia de lo que se dice: *Neskatx bat ederra. Laino bat izigarria*. En lugar de decir, al modo ordinario, *laino izigarri bat* «una niebla espantosa», se obtiene el efecto enfático poniendo el adjetivo *izigarri* como si fuera un sustantivo en aposición, yuxtapuesto a *laino bat* y provisto de artículo. Este procedimiento es muy usual”.

Villasantek garbi ematen du aditzera modurik ohikoena zein den eta indar berezia emateko edo hanpatzeko zein prozedura erabiltzen den, eta N’ Diaye (1970) autorearen aitzakian Baztanen aurkitutako formez baliatzen bada ere, jokamolde hau oso arrunta dela aitortzen du bukaeran.

Aipatutako adibideetatik beretatik abiatuz horrela aurkez dezakegu ISBaren gertakaria ohikoen den egituratik abiatuz:

- [neskatx eder bat] → [neskatx ø bat] ederra  
 [laino izigarri bat] → [laino ø bat] izigarria

<sup>12</sup> Partitiboa determinatzaileetat hartzeko kontua ez da oraintzekoa. Azkuek (1969) artikulua abstraktutat eman zuen, eta gaur egun, esaterako, Eguzkitzak (1997) eta Artiagoitiak (1998) ere determinatzaileetat hartzen dute. Hemen azaldu dugun partitiboaren jokaerarengatik, eta beste hainbat arrazoiengatik ere, halakotzat hartzeraz bulkatzen dute.

<sup>13</sup> Beti ere, gure hipotesiaren arabera ari gara. Puntu honen hasieran esan dugu, esaterako, Azkuek (1969) *nahikoa* hartzen duela forma bakartzat eta ez *nahiko*. Baliteke euskaldun batzuek *-a*-dun forma izatea aldaera bakarra, baina *-berriz diogu-* hipotesi honen arabera ezinezkoak dira *\*nahikoa ongi/nekaturata* bezalako adibideak. Ez dira posible, neurri batean, eta ez ditugu gauzak gehiago nahasi nahi, *samar*, *aski* eta antzeko graduatzaileekin *\*ongi samarra*, *\*askia nekatuta*, e.a. bezalako esaldiak osa ezin daitezkeen moduan, hots, artikulua daramaten graduatzaileak, oro har, aditzondoekin ezin erabil daitezkeen moduan.

Izenondoa atera denez, honek garraiatu du mugatzailea berarekin batera. Baina gerta liteke sintagma jakin bat osagai batez baino gehiagoz eratua egotea, goiko adibideetan bezala, eta izenondoa atera beharrean izena ateratzea. Orduan hara nola banantzen den sintagma multzoa:

[neskatx eder bat] → [∅ eder bat] neskatxa  
 [laino izigarri bat] → [∅ izigarri bat] lainoa

Ez du ematen azken banantze hauek oso tajuzkoak direnik. Begira dezagun, bestalde, izenondoen maila aditzondoekin bananduta dauden esaldiak (42-43).

- (42) gizon bat / *oso ona* / ikusi dut  
 (43) kotxe bat / *polit askia* / ikusi dut

Esaldi hauetan ez dirudi jatorrizko izen sintagma bakarraz hitz egin dezakegunik<sup>14</sup>. Lehenengo esaldiarentzat abiapuntutako *oso gizon on bat* sintagma proposa badaiteke ere, ez du ematen *\*kotxe polit aski bat* sintagma jo daitekeenik bigarren sintagmaren iturritako. Beraz, orain arte jatorrizko tokitik mugitzen direla edo ateratzen direla esan baldin badugu ere (eta esanen badugu ere), hobeki litzateke bi zatitan banantzen dela proposatzea besterik gabe.

Azaltzez, azal daiteke era honetara begiratuta:

\*[kotxe polit aski bat ] → [kotxe ∅ ∅ bat] polit askia

Baina ikusten dugu zenbaitetan horrelako banantzeak ez direla zilegi (cf. *\*izugarri bat lainoa*, *\*eder bat neskatxa*,...) edo banantzea posible denean, aposizioan edo paratuz, hori azalduko lukeen jatorrizko esaldia ez dela erabat onetsia (cf. *\*kotxe polit aski bat*,...). Teoria honen alderik ahulena dateke honako hau.

Dena dela, kontuan hartu zenbatzailerik ez duen esalditik abiatuz (44), ez dagoela inolako arazorik (45) eta (46) bezalako banantzeak egiteko.

- (44) *kotxe polit askia* ikusi dut  
 (45) *kotxea* ikusi dut *polit askia*  
 (46) ikusi dut *kotxea (l) polit askia*

Beste zenbatzaile zehaztuekin eraikitako sintagmetan aintzat hartu behar dena da sintagma bera mugatua den (47) edo ez (48), bataren eta bestearen arteko jokamoldean bai baitago desberdintasunik.

- (47) bi gizon berritsuak jarri dira erdian  
 (48) bi gizon berritsu jarri dira erdian

Bananduta eman nahi izatekotan, kasu hauetan aposizioan zalantzarik gabe, horrela emanen genituzke:

- (49) *bi gizonak* / berritsuak / jarri dira erdian  
 (50) bi gizon / *berritsuak* / jarri dira erdian

Sintagmen arteko etenaldia nabari gelditzen da.

<sup>14</sup> Goenagak (1980:61) era honetako esaldiak aposiziotako hartzen ditu. Bere ustez, koordinazioarekin zer ikusia badu, *gizon bat oso ona* esaten dugunean, *gizon bat eta oso ona* edo antzeko zerbait izanen genukeela dio.



*Genitiboekin osaturiko sintagmak*

Suerta liteke, ez sintagmako izena, baizik izenarekin doan izenlaguna mugitzea bere jatorrizko lekutik; orduan, hasierako sintagmatik lekunez aldatu den izenlagun horrek hartuko du determinatzailea (51-52).

- (51) a) *nire kotxea* ikusi al duzu?  
 b) *kotxea nirea* ikusi al duzu?  
 (52) a) *hemengo jendea* esnatzen ari da  
 b) *jendea hemengoa* esnatzen ari da

Adibide hauetan jazotzen denari so eginez gero, ohar gaitetzke dagoen diferentzia bakarra, izenaren eta izenlagunaren ordena aldaketaz landara, izenlagunek, a)ko izen sintagmetan ez bezala, determinatzailea daramatela. Jatorrizko sintagmatik atera diren elementuek –goitiago eman ditugun adibideetan izenek, eta hemengo hauetan izenlagunek– gutxienez *-a* determinatzailea hartzen dute. Lehenago bezala, hobeki ikusteko, horrela irudika daiteke:

[nire kotxea] → [∅ kotxea] nirea  
 [hemengo jendea] → [∅ jendea] hemengoa

Zenbatzaileekin eratutako hainbat sintagmetan ez bezala, honako hauetan nekezago hitz egin daiteke, gure iduriz, aposizioaz, lotura estuagoa duten sintagmak baitira (cf. zenbait zenbatzaile zehaztugaberekin edota izenondoe-kin eraikitako sintagmak,...).

Jakina, sintagma pluralekoa izanez gero, banantzen den elementuak, kasu honetan izenlagunak, *-k* pluralgilea ere hartu beharko du, lehen azaldu dugun gisan (cf. *nire kotxeak* → *kotxeak nireak*, *hemengo jendeak* → *jendeak hemengoak*).

Paratu ditugun adibideetan izen arruntak, hots, artikuludunak, erabili ditugu (cf. *kotxea*, *jendea*,...), baina zer gertatzen da izen arrunten ordez bereziak hartzen baditugu (53-54) esaldietan bezala?

- (53) gure Peru  
 (54) zuen Mertxe

Badirudi, era bananduan eman nahi izatekotan, goian bezala, sintagmatik ateratzen den izenlagunak artikulua hartu behar duela, ondoan azaltzen dugun moduan:

[gure Peru] → [∅ Peru] gurea  
 [zuen Mertxe] → [∅ Mertxe] zuena

Itxuraz, ISBaren legeak betetzen dituzte azkeneko bi adibide hauek, baina sarrixeago zehazkiago azalduko dugunez, ikusiko dugu ezin ditugula izen sintagma banandutako hartu, deklinabide atzizkiak eransterakoan jokabide desberdina agertzen baitute bi adibide hauek eta ISBaren arabera emandakoek.

*Esaldi erlatiboekin osaturiko sintagmak*

Zenbait esaldi erlatibotan orain arte ikusi ditugunen antzetsuko gertakariak aurki ditzakegu, Gavelek aipatzen duena lekuko (cf. *ezagutzen dituzuia Joanesen adiskideak*, *Donibane Garazitik jiten direnak?*). Berak ongi aski dioen

bezala, perpauis erlatiboak (zenbait motatakoek bederen) zinetako genitiboek bezala jokatzen dutenez, hauen jokaera berdina dute banantzeko garaian ere. Esaterako, (55-56) esaldiak zatitzen direnean (57-58) modura egiten dira.

- (55) *zeruetan zaren gure aita*  
 (56) *goizeko seietan jaiki eta Kontxara igeri egitera joaten den gizon bat ezagutzen dut*  
 (57) *gure aita zeruetan zarena*  
 (58) *ezagutzen dut gizon bat goizeko seietan jaiki eta Kontxara igeri egitera joaten dena*

Egia esan, esaldi erlatiboak maizkara aurkituko ditugu nonahi era bananduan. Arrazoi asko daude horrela jokatzeke: ohitura delako, (57) adibidean bezala, edo esaldia luzeegia delako, (58)an bezala, edo testua argiago edota arinago utzi nahi delako, esaldi edo egitura korapilatsu bat sinpletu nahi delako, e.a.

Lanean zehar behin eta berriro esan dugu banantzen den zatiak mugatzailea (edota pluralgilea) hartu behar izaten duela. Goian, *nahiko* zenbatzaileak mintzatu garenean, aipatu dugu bi determinatzaile desberdin hartzen dituzten sintagma bananduak zalantzazkoak zirela. Adibide haiek (37-39) atzera gogora ekarriko ditugu (cf. *??nahikoa lanik, ??lanik nahikoa, ??gorria ba al da txokolaterik?*). Orduan, posible ote da esaldi erlatiboekin jatorrizko sintagmari ez dagokion beste determinatzaile bat erabiltzea? Arestian eman dugun atzeneko (58) esaldia beste era honetara ere azal dakiguke:

- (59) *ezagutzen dut gizon bat goizeko seietan... joaten denik*

Hortaz, noiz bata eta noiz bestea? Argitu eta zehaztu beharko litzatekeena da noiz erabiltzen den artikulua eta noiz partitiboa, baina ezin uka mugatzaile bata zein bestea ager daitezkeela.

Eztabaidagarriagoa da –eta hobeki aztertu beharrekoa– zenbatzailearekin eraikia dagoen *gizon bat* bezalako sintagmaren ordean, *gizona -a* artikulua duen sintagmarekin topo eginez gero, bigarren zatiak (banandu den zatiak) *-ik* partitiboa har dezakeen edo ez, hots, (60) bezalako ISBa posible den edo ez.

- (60) *??ezagutzen dut gizona goizeko seietan... joaten denik*

Ez dirudi, gure herrian esaten den bezala, oso santu-santua denik. Bestalde, bi zatiak *-ik* partitiboarekin emateko ez dago inolako eragozpenik (61).

- (61) *ezagutzen dut gizonik goizeko seietan... joaten denik*

### *Neurri-sintagmak*

Neurria, pisua, e.a. adierazteko erabiltzen diren sintagmek aurrekoen jokaera berdintsua dutela ematen du:

- (62) *bi kilo sagar*  
 (63) *hiru litro ardo*

Bananduta ematen ditugunean mugatzailea edota pluralgilea hartzen dute:

- (64) *sagarra(k)* / bi kilo  
 (65) *ardo* / hiru litro

(64) adibidean plurala azalduko zaigu sintagma pluraltako sumatzen dugunean, bestela singularrean emanen dugu. Zer esanik ez dago honelako sintagmak arrunt luzeak direnean, orduan banantzeko joera nabarmenagoa baita. Berez (66-67) esaldiak horrela eman beharko lirateke:

- (66) bi kilo Tolosako babarrun gorri  
 (67) bi litro Uxueko ardo gorri hotz

Sintagma hauek era honetara ematea baino askoz arruntagoa da, gure ustez, bi zatitan banantzea:

- (68) *Tolosako babarrun gorria* / bi kilo  
 (69) *Uxueko ardo gorri hotza* / bi litro

edota:

- (70) bi kilo / *Tolosako babarrun gorria*  
 (71) bi litro / *Uxueko ardo gorri hotza*

Adibide hauetan argiago ikus daiteke aposizioan doazela etena gauzatzen denean, baina antzeman daitekeen moduan zenbatzaileekin eraikitako sintagmak izan arren, banantzen den zatiak mugatzailea (eta sintagma plurala denean pluralgilea) hartzen du.

#### b) Izen sintagma banandua eta kasu markak

Baina zer gertatzen da izen sintagmak beste kasu markaren bat edo posposizioen bat hartzen duenean? Nola burutzen da orduan banantzea? Eman ditzagun ondoko adibide hauek mota desberdinetatik hartuz:

- (72) gure Pellok egin du lan hori  
 (73) nire hurrei erori zaie  
 (74) kotxe gorriarekin etorri naiz  
 (75) Untxariko Ximontzat da hau

Oro har, esan dezakegu sintagmak bananduta ematen direnean, gehiengotan, aposizioan paratzen ditugula etena nabarmenago delarik (Euskaltzaindia 1993:184). Beraz, goiko esaldiak era honetara banantzen dira:

- (76) Pellok egin du lan hori / *gureak*  
 (77) hurrei erori zaie / *nirei*  
 (78) kotxearekin etorri naiz / *gorriarekin*  
 (79) Ximontzat da hau / *Untxarikoarentzat*

Alde bateko eta besteko zatiek lotura estua dutela ez dugu uste zalantzan jar daitekeenik. Banantze hauetan mugatzailea edota pluralgileaz gain kasu marka ere hartu du banandutako zatiak, ez dirudi bestela, goiko esaldien zentzua gordez, zuzen egon daitezkeenik honako hauek:

- (80) \*Pellok egin du lan hori / *gurea*  
 (81) \*hurrei erori zaie / *nireak*  
 (82) \*kotxearekin etorri naiz / *gorria*  
 (83) \*Ximontzat da hau / *Untxarikoa*

Hortaz, deslektuze edo banantze horien arrazoiak zein baitira ere, dela galdegai/mintzagai jokoagatik dela hizkuntza mintzatuaren bat-batekotasunagatik, orain arte esandakoari jarraituz, esan daiteke sintagmatik atera den elementuak berekin batera garraiatzen duela sintagma osoari dagokion hondarki guztia, beraz, artikulua, pluralgilea –duenean– eta kasu marka edo posposizioa.

Hala ere, ez du ematen sintagmaren ardaztako izenordainak edo izen bereziak agertzen direnean arau horri orpo orpo jarraitzen diotenik:

- (84) Andoniri, gure lehengusuari, gauzak ongi atera zaizkio  
 (85) Andoni (/) gure lehengusuari, gauzak ongi atera zaizkio

Lehenbizikoa banandutako izen sintagmaren antzekoa litzateke –Euskaltzaindiak (1993:179-181) aposizio ez-murrizgarria deitzen dio–; bigarrena, berriz, aposizio murrizgarrian-edo ezarritako izena genuke. Dena den, ohartarazi nahi dugu esaldi hauetako testuingurua, guk aztertu ditugunekin erkatuz, zertxobait desberdina dela. Guk azaldutako sintagmetan izen bakarrak osatzen zuen sintagma, baina honako hauetan bi izenki agertzen zaizkigu. Ez dakigu, kasu hauetan, zein neurritaraino hitz egin dezakegun izen sintagma bananduaz, banantzen direnak ez baitira izena edota bere osagarriak (izenondoak eta izenlagunak) edota zenbatzaileak, baizik eta bi izen, edo bi ardatz-elementu, izenordainak ere aintzako hartzen baditugu.

Hala ere, orain arte proposatutako teoria eskas eta urri gelditzen zaigu determinazioaren ikuspuntutik sintagmaren barnean suertatzen diren gertakari guztiak azaltzeko. Nahitaezkoa dugu beste zerbaiten bila abiatzea teoria guztia ongi hornitzeko; hain zuzen ere, sintagmen barneko elementuen mugimenduz hitz egin beharrean gaude.

### 3.3. Hitz ordena aldatua duten izen sintagmak

Sintagmen barneko osagaien ordena finkoa edo aski finkoa dela esan ohi da (Osa, 1990), hau da, izenondoak izenaren eskuinean eta izenlagunak ezkerrean paratzen direla. Baieztapen hau hein handi batean egia izan arren, salbuespenak badirela frogatzen saiatuko gara, eta dexente gainera.

Gramatikari gehienek eman izan dute joera nagusi honen berri, baina bada salbuespenak aipatzen dituenik ere. Euskal izen, morfologia eta sintaxiaren jatorriasun eta txukuntasuna era apologetikoan azpimarratu zuen Astarloa (1883:765), esaterako, honela mintzo da:

“Este idioma es tan puntual en anteponer los poseores a las cosas poseidas, que sería despreciable, como inculto en sus locuciones, el que trastomase este orden. (...). Es tanta la observancia de nuestra lengua en la anteposición de sus poseores, que no solo lo ejecuta con los sustantivos, sino tambien con aquellos adjetivos llamados por los gramáticos posesivos. Decimos *lapicoco oquelia*,... *Españaco Erregia*,... *echeco Jauna*,...: pero se oye al bascongado *oquela lapicocua*: *Erregue Españacua*: *jaun echecua*.” (Beltzagoan emandakoa gurea da)

Gramatikari gehienek bezala Campionek (1977) ere gauza bera azpimarratzen du, baina *-zko* atzizkiaz diharduenean honako adibide hau dakar:

- (86) ... eta faraonek ukatu zionean **euli andi pozonizkoak** erakarri zituen (g) «y cuando le negó Faraón, hizo traer las grandes moscas de ponzona». (1977:233)

Hauen antzeko adibideak erruz bila genitzake euskal literaturan zehar gehixeago arakatzen hasiz gero. Baina beude erakusgarri modura aipatutako hauek.

Azaldu dugu izen sintagmaren barneko elementuen ordena alda daitekeela, eta era zatituan gauzatzen denean bananduta doan elementuak hondarkia ere hartzen duela. Bada, horratik, orain arte aipatu dugun banantze motaz gainera, sintagmaren barnean gertatzen den beste ordena aldaketa bat. Kasu honetan ezin dugu ISBaz hitz egin, mugitzen diren elementuek ez dutelako ez mugatzailerik ez kasu markarik hartzen, edo hobeki esan, sintagmaren barnean elementuak mugitu arren artikulua eta hondarkia behin bakarrik gauzatzen dira, beti errepikatu ohi den bezala, bukaeran eta sintagma osoari dagokiola gainera. Para ditzagun adibide bat edo beste. Hasteko, ekar dezagun goian erdizka azalduta utzi dugun adibide hau:

(87) *Pello gurea* etorri da

Hasiera batean pentsa liteke izen sintagma banandua izan daitekeela *Pello gurea* sintagma, ordena kanonikoko *gure Pello* sintagmatik ekarrarazten badugu. Ber gauza esan daiteke, gaur egungo euskaran bederen, beste bi esaldi hauetaz:

(88) *Milagros Alduntzingoa* etorri zaigu

(89) *Koro Makatxarena* ikusi dut

Suposa liteke izenlagunak bere ‘jatorrizko’ tokitik mugitu direnez hondarki guztia garraiatu dutela, hau da, determinatzailea (-a artikulua) eta kasu marka (adibide hauetan absolutiboa:  $\emptyset$ ).

[Alduntzingo Milagros] → [ $\emptyset$  Milagros] Alduntzingoa  
[Makatxaren Koro] → [ $\emptyset$  Koro] Makatxarena

Baina zer jazotzen da, ordea, beste kasu markaren bat edo posposizioen bat hartzen dutenean? Nola jokatzen dute orduan? Honatx nola eransten zaien kasu marka edo posposizioa:

(90) *Pello gureak* egin du lan hori

(91) *Milagros Alduntzingoari* tokatu zaio loteria

(92) *Pello (I) Koro Makatxarenarekin* etorri da

Azkeneko adibidean, (92)an, etena hautazkoa bada ere, gauzatuz argiago ikus daiteke *Pello* sintagma alde batetik dagoela subjektu funtzioarekin, eta *Koro Makatxarenarekin* sintagma beste aldetik dagoela.

Adibide hauetan *Pello gureak*, *Milagros Alduntzingoari* eta *Koro Makatxarenarekin* multzo batean elkartu zaizkigu sintagma osoa eta bakarra osatuz; hondarkia behin agertzen zaigu eta sintagmaren azken muturrean dago kokatua sintagmaren barneko elementu guztiak besarkatzen dituela. Ez dute, hortaz, ISBan bezala, zatitutako edo mugitutako elementuek hondarki guztia hartu.

Orduan, goian aipatutako sintagma motetan barneko elementuen ordena aldaketaz hitz egin beharrean gaude, hau da, izenlagunen ohiko ordenatik abiatuz esan beharko dugu izenaren eskuineko aldera igaro direla:

[gure Pello] → [Pello gure]-a

[Alduntzingo Milagros] → [Milagros Alduntzingo]-a<sup>15</sup>  
 [Makatzaren Koro] → [Koro Makatzaren]-a

Baina ikus daitekeen bezala, izenlaguna izenaren gibeletik ematen bada, nahi eta nahi ez mugatzailea hartu beharra du. Era bananduan eman nahi izatekotan honelatsu botako genituzke:

- (93) *Pellok* egin du lan hori / *gureak*
- (94) *Milagrosi* tokatu zaio loteria / *Alduntzingoari*
- (95) *Kororekin* etorri da / *Makatzarenarekin*

Adibide hauetan banandu den elementuak hondarki guztia hartu du (78-79) adibideetan bezala (cf. *haurrei erori zaie* / *nirei*, *kotxearekin etorri naiz* / *gorriarekin*).

Badirudi, hortaz, *Pello gurea* eta antzeko sintagmek aposizio murrizgarrian dauden sintagmek bezala jokatzeko dutela. Horrela, bi sintagma motak parez pare erkatuz:

- (96) Urumea *ibaia* / Pello *gurea*
- (97) Oriá *ibaira* / Axun *Mañolirenarengana*
- (98) Bidasoa *ibaiarekin* / Koro *Loidinekoarekin*

Bi erduen arteko desberdintasun bakarra da batean izenak agertzen zaizkigula (cf. *ibaia*,...) eta bestean, berriz, *-en* eta *-ko* atzizkiak dituzten izenlagunak.

Mota desberdinekoak direla esateko bada beste arrazoirik. *Peru gurea*, *Miel Labekoa* eta *Axun Mañolirena* bezalako adibideetan izen berezia agertzen zaigu haserako lekunean, eta ezin da garbi ikusi mugatzailearik daramaten edo ez, izen bereziak, berez, ez baitaramate, oro har, artikulurik. Baina zer gertatuko litzateke hasierako lekune horretan izen arruntak ezarriz gero? Nola jokatzeko dute izen arruntek? Artikulurik hartzen ote dute? Arazoa argitu nahian adibide bat edo beste paratuko ditugu:

- (99) okela *lapikokoa*
- (100) jaun *etxekoa*
- (101) euli handi *pozonizkoak*
- (102) ahatetxo *nirea*
- (103) kuttun *nirea*
- (104) txoro *zurekikoa*

Astarloak eta Campionek emaniko *-(z)ko* atzizkia daramaten izenlagunen adibideez gainera, *-en* atzizkia daramatenak aurkezten ditugu. Denbora guztian atzetik segika dabilkion andereñoak haurrari *ahatetxo nirea* esaten dionean, edo amak haurra *kuttun nireari zer pasatu zaio?* esanez kontsolatzen duenean, edo azio bat egin ondoren aitak haurrari *txoro zurekikoa* esanez errieta ematen dionean bota daitezkeen esapideak ditugu honako hauek.

Ikus daitekeen moduan, sintagma hauetan izenek, edo izenkiek hobeki esateko, ez daramate artikulurik, eta determinazioa sintagmaren bukaeran baizik ez dago kokatua. Bestalde, kontuan izan hondarkia sintagma osoari

<sup>15</sup> Gaur egungo euskaran bederen bai. Ez dirudi diakronikoki horrela izan denik (cf. *Milia Lasturco* (Mitxelena, 1964:75)).

paratzen zaiola (cf. *ahatetxo nereari zer pasatu zaió?, euli handi pozonizkoak*, e.a.) eta ez barnean dauden elementu guztiei. Hortaz, mugimendu hau gertatu dela esan daiteke:

<u>ohiko ordena</u>		<u>ordena aldatua</u>
- [etxeko jaun]-a	→	[jaun etxeko]-a
- [pozonizko euli handi]-ak	→	[euli handi pozonizko]-ak
- [nire ahatetxo]-a	→	[ahatetxo nire]-a
- [nire kuttun]-a	→	[kuttun nire]-a
- [zurekiko txoro]-a	→	[txoro zurekiko]-a
- [egurrezko jostailu]-a	→	[jostailu egurrezko]-a

Badirudi aise alda daitezkeela lekuz *-(z)ko* atzizkia daramaten izenlagunak, eta lekukoak nonahi bil daitezke (cf. *zezen suzkoa, perpaus denborazkoek*<sup>16</sup>, *euskaldun iturri jatorrizkoetan*<sup>17</sup>, e.a.). Dena dela, leku-aldatze honek sintagmaren esanahiari ñabardura berezia ematen diola azpimarratzen du Garziak (1997)<sup>18</sup>. Era berean, bizi-bizirik daude pertsona izenekin erabiltzen diren *-en* genitiboak; gehiago esanen dugu, usuago erabiltzen dira Goizuetan *Axun Mañolirena* eta *Koro Makatxarena* ordena aldatua duten sintagmak *Mañoliren Axun* edo *Makatxaren Koro* ohiko ordena duten sintagmak baino<sup>19</sup>.

Ildo beretik jarraituz, behin baino gehiagotan aipatu izan den hitz berezi bat ekarri nahi genuke hona: *jaungoikoa*. Gavelek (1929: 93) dioen bezala: “...l'élément *goiko* est en réalité un génitif attributif; il est néanmoins postposé au nom *jaun* «seigneur», et reçoit les désinences du singulier (...)”. Azken finean, beraz, genitiboa eskuinetara duen hitz lexikalizatua baizik ez da. Eta gure ustez ere, arestian emanikako adibideetan bezala, ordena aldatua duen izena da, berez ezaugarri berak baititu, nahiz eta guztiz lexikalizatua egon.

Zenbaitetan, gainera, beharrezkoa egiten da izenlaguna izenaren ondotik paratzea; bestela nola emanen genuke, esaterako, *helburu* izena errepikatu gabe ondoko esaldi hau:

(105) arlo honek helburu kontzeptualak eta *prozedurazkoak* ditu.

Bestalde, euskal ordinalak osatzeko *-garren* atzizkia, oro har, ardatzaren ezkerretara agertu ohi da, baina tituluak, erregeen izenak, e.a. izendatzeko, esaterako, tokiz aldatzen dira, hondarkia bukaeran bakarrean paratzen delarik (cf. *Carlos V.a*, e.a.). Halaber, efektu berezia sortzeko literaturan ere nahiko errekurtsio erabilia da (cf. *anaia bigarrenak esan zion*,...).

Ordena aldaketa hau *-en* eta *-ko* atzizkien bidez eratutako izenlagunekin ez ezik izenondoekin (edo halakotzat hartu izan direnekin) ere suerta daiteke

<sup>16</sup> Esaldi osoa ‘Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoek’ da (Gaminde 1990)

<sup>17</sup> Esaldi osoa: ‘... ene belaunaldiko euskaldun iturri jatorrizkoetan edan dutenentzat bederen ino-lako problemarik gabea alde horretatik’ (Irigoien 1992:47).

<sup>18</sup> Juan Garziak (1997: 368-428, batez ere 387 eta 393) baieztatzen du izenlaguna izenaren ezkerrean edo eskuinean paratuta esanahia aldatu egiten dela. Bere ustez ez dute esanahi bera ‘zeru segaz jota-koak’ eta ‘segaz jotako zeruak’, edo ondoko beste bi hauek: ‘Aita Saindu Erromakoa ≠ Erromako Aita Sandua’.

<sup>19</sup> Ez dakigu mota honetako genitiboa duten egituretan, hau da, *-en* atzizkia dutenetan, ordena aldaketaz hitz egin beharrean (cf. *Mañoliren Axun* → *Axun Mañolirena*), ez ote den zuzenago elipsiaz hitz egitea (cf. *Axun Mañoliren (alaba)-a*). Dena dela, bego arazoa oraingoz bere horretan.

(cf. *gaixo pekataria*, e.a.). Eta ildo beretik jarraituz, gure iritziz sinpleago litzateke azkenaldi honetan hain eztabaidatuak (izan) diren *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiak daramatzaten izenondoak ere modu honetara azal daitezkeela esatea (cf. *mutil diruduna/dirudun mutila, diputatu frantziarra/frantziar diputatua*, e.a.).

Beste alde batetik, esan dugun hau ISBaren gaiarekin lotuz, ohartu ares-tian (102-104) aipatutako adibideetatik (cf. *ahatetxo nirea, txoro zurekikoa*, e.a.) beste segidako hauetara pauso txiki bat besterik ez dagoela:

(106) Ahatetxoa nirea.

(107) Txoroa zurekikoa.

Horrelako adibideen tankeratsukoak dira harridurazko esaldietan agertzen diren zenbait ere (cf. *hura poza nirea!, a ze burua Pellorena!,...*), nahiz eta bestelako eitea duten, eta segur aski beste azalpen batzuk ere beharko diren mota honetako esaldiak azaltzeko.

Hemengo (106-107) adibideetan suertatu den aldaketa bakarra, (102-104)koekin alderatuz, da izenak artikulua hartu duela. Baina oraingo haue-tan ezin dugu ordena aldaketaz hitz egin, baizik eta ISBak direla esan beharko dugu, izenlagunak baitira, nolabait esako, jatorrizko lekutik mugitu direnak, alegia, *nire ahatetxoa* eta *zurekiko txoroa* sintagmetatik atera direnak.

Determinatzailearen agerpenaren arabera, hortaz, hiru multzo garbi hauek bereiz ditzakegu:

ohiko ordena

ordena aldatua

ISB

*nire ahatetxoa*

*ahatetxo nirea*

*ahatetxoa nirea*

Azken finean, hobeki ikusteko kasu atzizki bat erantsiz, *ahatetxo nireari* eta *ahatetxoari nireari* sintagmen arteko desberdintasuna banandua izatean edo barneko ordena aldatua izatean datza.

#### 4. ONDORIOAK

Orain arte euskal gramatiketan beti esan izan da ISek mugatzaile bakarra har dezaketela. Aipatutakoaren lekuko, esaterako, Goenaga (1980) dugu, eta honela dio hitzez hitz: “*Eta izen sintagma batek ez dezake mugatzaile bat baino gehiago hartu*” (65). Hala ere, pixka bat aurreraxeago, baieztapen horren salbuespenak ere badaudela aitortzen du (Goenaga 1980:76-79), hain zuzen ere IS mugatuetan agertzen diren determinatzaile bat baino gehiagoko kasuak aipatzen ditu (cf. *bi gizonak* edo *gizon biak, hiru seme hauek,...*); eta beste mota bateko salbuespenekin jarraituz, determinatzaile bikoitzeko sintagmak direla aitortzen du Artiagoitiak (1998) mendebaleko *hori gizon altua, hauek gizon altuak* bezalako esapideetan aurkitzen ditugunak.

Baina salbuespen horiezaz gain, lan honen helburu nagusia IS ez-muga-tuetan –edo nahiago bada, ohikoetan, arruntetan– sintagmak berak determi-natzaile bat baino gehiago har ditzakeela frogatzea zen. Horretarako, ezin-bestekoa egin zaigu, alde batetik, determinatzaileen jokaerari erreparatzea eta, beste aldetik, sintagma osatzen duten elementuen ordenari begiratzea.

Bi aldagai horien arabera (berriro diogu, goiko salbuespenak alde batera utziz), hiru IS mota bereizi ditugu:



- 1.- ohiko ISk
- 2.- izen sintagma bananduak (ISB)
- 3.- elementuen ordena aldatua duten ISk

Lanean zehar ikusi dugu ohiko sintagmen elementuen ordena aldatzen denean ez dela ez noiznahi ez nolana egiten, baizik eta lege jakin batzuk jarraituz egiten direla aldaketa horiek. Lege edo arau horiek zehazten saiatu gara eginahal guztietan.

Gure ustez, (19a, b, c), (22a, b, c) eta (23a, b, c)ko adibideak aintzat hartuz (cf. *begi ederrak dituzu, ederrak dituzu begiak eta begiak ederrak dituzu; diru asko irabazi duzu, asko irabazi duzu dirua eta dirua asko irabazi duzu; galtza asko dituzu, asko dituzu galtzak eta galtzak asko dituzu*), esaldi horiek denek elkarren artean duten lotura oso estua da, eta guztiek, determinazioaren ikuspuntutik, jokaera berdintsua erakusten dute; dagoen diferentzia da sintagma berak modu desberdinetara emanak daudela: batean, ordena kanonikoan edo ohikoan emanik daude (hiru adibideetan a) bezala paratu ditugun esaldietan, hots, hemen eman ditugun lehenbizikoetan) eta besteetan (cf. *guk b*)-n eta *c*)-n eman ditugunetan, hau da, beste bietan) izen sintagma berak direla esan daiteke baina era bananduan emanak, determinatzaile (edota pluralgile) bat baino gehiago agertzen baitute.

Agian, ISBaren kontzeptua zalantzan para daiteke, esaterako, Euskaltzaindiak (1985: 232) ematen duen mota honetako esaldietan:

(122) Ainhoan izaten da *lana franko*

Uler daiteke *Zer izaten da Ainhoan?* eta *Lana, zenbat izaten da (dago) Ainhoan?* modura, hau da, zenbatzailea determinatzailetako edo aditzondotako har daiteke. Baina ez dugu uste irakurketa hau bera egin daitekeenik beste ondoko honetan:

(123) *gizona franko* ikusi nuen Ainhoan

Posible ote da aipatutako esaldi honetan *gizona, zenbat ikusi zenuen?* galdera egitea? Bestela esanez, kasu honetan har ote daiteke zenbatzailea aditzondotako? Honelako adibideek, eta lanean zehar han-hemenka aipatu ditugun beste hainbatek, ISBaren kontzeptua defendatzera bulkatzen gaituzte.

Txostenean zehar aditzera eman da ISBek, zein motatakoak baitira ere (izenondoekin osatuak, zenbatzaileekin, genitiboekin, erlatiboekin perpausekin, e.a.-ekin eratuak), denek, oro har, berdintsu jokatzen dutela: jatorrizko sintagmatik banantzen den elementuak hartu behar du sintagma osoari dagokion determinatzailea edota hondarkia. Hortaz, determinatzaile bat baino gehiagoko sintagmak ditugu honako hauek.

Dударik ez dago, kasu desberdinak ikusita, zenbait ISren banantzea arruntagoa dela eta aiseago suerta daitekeela beste zenbaitena baino (cf., esaterako, Gavelek aurkezten dituen argudioak: bat-batekotasuna, azkartasuna,...). Hori horrela izateko arrazoia erabileran eta elementu bakoitzaren ibilbidean bilatu beharko da, seguru asko. Dena dela, esan behar da hizkuntzaren zuzentasunaren eta jatorritasunaren sena jaiotikako hiztunak duela bere baitan. Eta edozein jatorrizko hiztuni galdetuz gero ondoko bi esaldi hauetatik zein dagoen zuzenago edo *asko ateratzen du soinua* edo *soinu asko ateratzen du*, ez luke seguruenik zalantza izpirik egingen bigarrena aukeratzeko garaian. Horrek ez du esan nahi, ordea, lehenengoa 'gaizki' dagoenik; kontua

da, ISren ohiko ordenari hobeki eusten diola bigarrenak, eta hortik heldu datekeela, apika, jatorragotasunaren ustea. Adierazitako banantze hauek, gainera, ahozko hizkeran usuago agertzen diren arren, hizkuntza idatzian erabiltzen dira zenbaitetan: estiloa arinago egiteko, esaldien ulermena errazteko, efektu berezia sortzeko, ...

Egia osoa esateko, konturatzen gara proposatu dugun ISBaren teoria honekin lehen ilun samar zegoen hainbat adibide eta esaldi orain argi azal daitekeela, baina era berean ohartzen gara, teoria azken muturreraino eramanez, sintagma ez gramatikalak ere sor daitezkeela. Adib. *lana / handia dut* edo *handia dut lana* esaldien ondoan, inolako etenik gabeko *\*lana haundia dut* esaldia ere sor daiteke teorikoki. Jakina, alde honetatik erregelaren boterea murriztu behar, ezin baita edozein gauza ontzat hartu. Euskararen jabekuntzan ere –gai honen harian hasi gara eta gai honen inguruan bukatuko dugu– haurrek botatzen dituzten hainbat esaldi ISBaren hipotesiaren bidez neke handirik gabe azal daitezke, baina bada aro labur bat non *\*lana handia dut* bezalako sintagma motak ekoizten dituzten, hau da, sintagmako izenari artikulua kentzea kostatzen zaien. Alde honetatik, teoria honek zaildu egiten du, neurri batean bederen, gure azterketa, behar bezala egiten lagundu beharrean. Hainbat ahalmen duen arau bati nola ez mugak paratu!

Halaber, amaitzeko, ikusi dugu *Peru gurea* eta antzeko sintagmak (87-89) ezin direla ISBtako hartu, mota honetako sintagmek determinatzaile bakarra erakusten dutelako, eta, beraz, ordena aldatua duten IStako hartzea proposatzen da.

Azken finean, determinatzailearen jokaerari kasu eginez, bi IS mota daudela esan genezake: alde batetik, determinatzaile bakarra dutenak (ohikoak eta ordena aldatua dutenak) eta, beste aldetik, bat baino gehiago dutenak (ISBak eta lan honetan gaineratik aipatu ditugun *bi gizonak* bezalako IS mugatuak eta mendebaleko *hori gizon altua* bezalakoak).

Ezin dugu hemen amaitutzat eman ISren eta determinazioaren inguruko gaia. Oraindik arlo ugari daude sakonkiago aztertu beharrekoak eta lan honetan alde batera utzi ditugunak; adibide bat ekartzeko, konparaziozko esaldietan mugatzailearekin gertatzen dena (cf. *berak dakien(a) baino gehiago dakit, behar duen(a) baino handiagoa du, gasta dezakeen(a) baino diru gehiago du,...*). Agian ISBarekin nola-halako lotura badu gertakari honek, edo agian beste zerbait da. Ziur gaude gehixeago arakatzuz gero, beste hainbeste aukera eman, gai proposatu, korapilo lasatu, bihurritu askatu eta azterketa burutu daitekeela oraindik ere.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- AÑIBARRO, P.A. (1970): *Gramática Bascongada. Escrita hacia 1820 y publicada ahora por primera vez*, (Villasantek paratutako azpituilua), Donostia.
- ARTIAGOITIA, X. (1998): “Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan”, *Uztaro*, 27, UEU, 33-61.
- ASTARLOA, P. P. de (1883): *Discursos Filosóficos sobre la Lengua Primitiva ó Gramática y Análisis Razonada de la Euskara ó Bascuence*, Bilbo.
- AZKUE, R.M. (1891): *Euskal-Izkindea*, Astui-ko Jose-n moldegintzan, Bilbo.
- AZKUE, R.M. (1969 [1923]): *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- CAMINO, I. (1997): *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamendua, Donostia.

- CAMPION, A. (1977 [1884]): *Gramática de los Cuatro Dialectos Literarios de la Lengua Euskara*, Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- DARRIGOL aita (1827): *Dissertation Critique et Apologétique sur la Langue Basque*, Duhart-Fauveten inprimategia, Baiona.
- EGUZKITZA, A. (1993): "Adnominals in the Grammar of Basque", in HUALDE, J.I./ORTIZ DE URBINA, J. (argit.): *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, 163-187.
- EGUZKITZA, A. (1997): "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta posposiziobidea", *Hizpide*, 40, 39-52.
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1991): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- GAMINDE, I. (1990): "Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoek", *FLV*, 56, 165-204.
- GARZIA, J. (1997): *Joskera lantegi*, IVAP-HAEE (Herri Arduratzailearen Euskal Erakundea), Zarautz.
- GAVEL, H./LACOMBE, G. (1929): *Grammaire Basque*, Imprimerie du "Courrier", 9, Rue Jacques-Lafitte, Baiona.
- GEZE, L. (1873): *Eléments de Grammaire Basque*, Baiona.
- GOENAGA, P. (1980 [1978]): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia. Lehenbiziko argitalpena 1978koa izan zen.
- GOENAGA, P. (1991): "Izen sintagmaren egituraz" in LAKARRA, J. A. (argit.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, ASJU Gehigarria, XIV, Donostia, 847-865.
- HIDALGO, B. (1996): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (i)", *Hizpide*, 35, XIV, 39-51.
- IRIGOIEN, A. (1992): "Baten, batetan/batean, izen syntagma mugagabeak", *FLV*, 59, 45-54.
- LAFITTE, P. (1987 [1944]): *Grammaire basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar, Donostia.
- LARDIZABAL, F.I. (1856): *Gramática Vascongada*, Ignacio Ramón Barojaren inprimategian argitaratua, Donostia.
- LARRAMENDI, M. (1979 [1729]): *El imposible Vencido. Arte de la lengua Bascongada*, facsimil eran berrargitaratua, Hordago, Donostia.
- MITXELENA, K. (1964): *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid.
- MITXELENA, K. (1987-): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- N'DIAYE, G. (1970): *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague, Paris.
- OSA, E. (1990): *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginaren arauera*, E.H.U.ko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- POUVREAU, S. (1978 [1892]): *Les petites Oeuvres de Pouvreau*, Hordago, Lur, Euskal klasi-koak, Donostia. 1892ko edizioa Vinsonek argatiaratua da.
- REBUSCHI, G. (1984): *Structure de l'annonce en basque*, SELAF, Paris.
- SALABURU, P. (1987): "IS-ren mugimendua", in SALABURU, P. (zuz.): *Sintaxi arazoak*, Donostiako Udako VI. ikastaroak, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Donostia, 65-79.
- SALABURU, P. (1991): "Euskal perpausa: zenbait ohar sintaxi eta mintzagai egiturez", in LAKARRA, J.A. (edit.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 927-946.
- SARASOLA, I. (1996): *Euskal hiztegia*, Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa, Donostia.
- SCHUCHARDT, H. (1949 [1923]): *Primitiae Linguae Vasconum*, Cologia Trilingüe de la Universidad-CSIC.
- TRASK, R. L. (1983): "Euskal izen sintagmaren egituraz" in BATZUK, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbo.
- TXILLARDEGI (1978): *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbao.
- VAN EYS, (1883): *Outlines of Basque Grammar*, Trüber-ek argitara emana Londresen.
- VILLASANTE, L. (1978): *Estudios de sintaxis vasca*, Franciscana de Aránzazu, Oñati (Gipuzkoa).
- ZABALA, I./ODRIOZOLA, J. C. (1992): *Idazkera Teknikoa-Izen Sintagma*, E.H.U.ko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- ZABALA, I./ODRIOZOLA, J. C. (1994): "'Adjektiboen' eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza", *ASJU*, XXVIII- 2, 525-541.

- ZABALA, I. (1999): "Izen Sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak", in ODRIOZOLA, J. C. (koord.): *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, EHUko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- ZUBIRI, J.J. (1997): *Izen sintagmaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskaldun elebakaren jarraipena)*. Doktorego tesi argitaragabea. Gasteiz.

#### LABURPENEA

Ahozko nahiz idatzizko hizkeran erabiltzen diren hainbat eta hainbat esapide ohiko ISren egituraren bidez azaltzea ezinezkoa denez, lan honen helburu nagusia bide berriak urratzea eta beste sailkapen bat proposatzea izan da. Lanaldi honi ekiteko, batik bat bi ezaugarri erreparatu diegu, alde batetik, determinatzaileen agerpenari, eta beste aldetik, sintagmaren barneko elementuen ordenari. Bi ezaugarri hauen arabera honako sailkapen hau proposatzen da: 1) ohiko ISak, 2) izen sintagma bananduak (ISB), eta 3) elementuen ordena aldatua duten ISak.

Lanean zehar ISBez, batez ere, eta ordena aldatu duten ISez aritu gara. ISBen kasuan, esan daiteke, oro har, sintagmaren zatiren bat mugitzen denean, mugitutako elementuak berarekin batera garraiatzen duela sintagmari dagokion determinatzailea (cf. *txango polita egin genuen* → *polita egin genuen txangoa*). Horrelako sintagmetan, hortaz, determinatzaile bat baino gehiago agertzen dira. Eta nola jokatzten duten azaltzeaz gain, zer-nolako motak diren ere adierazten da txostenean. Bestalde, elementuen ordena aldatua duten ISen jokabidea aztertzen da; hauetan, sintagmaren barneko elementuak mugitzen dira, oro har, izenaren eskuinetara, baina determinatzaile bakarra agertzen denez, beste sail batean sartzea proposatzen da.

#### RESUMEN

El objetivo principal de este trabajo de investigación consiste en abrir nuevos horizontes de trabajo en el análisis tradicional que se hacía del sintagma nominal (SN), ya que ciertas expresiones del lenguaje hablado (y también del escrito) escapaban a las descripciones habituales y normativas dadas para el SN del euskara. La propuesta se basa sobre todo en la observación de dos variables; por una parte, se detecta el comportamiento de los determinantes del sintagma, y por otra parte, se comprueba el orden de los elementos que conforma dicho sintagma. Ateniéndonos a estas dos variables se propone la siguiente clasificación: 1) sintagmas tradicionales, 2) sintagmas excindidos, y 3) sintagmas con el orden de los elementos alterado.

En este trabajo se hace hincapié sobre todo en las dos últimas tipologías. En el caso de los sintagmas excindidos, el elemento que se mueve de su lugar de origen traslada consigo el determinante que le corresponde al sintagma entero. En este tipo de sintagmas, por tanto, existen más de un determinante (que en el parámetro del análisis clásico no ha tenido explicación convincente). En el otro tipo de sintagmas, en cambio, existe un movimiento de los elementos conformantes del sintagma, pero aparece única y exclusivamente un determinante, y no dos como en la tipología anterior, lo que lleva a postular la existencia de otro tipo de sintagmas diferenciados de los anteriores.

#### RÉSUMÉ

Le but principal de ce travail de recherche est d'ouvrir de nouveaux horizons de travail dans l'analyse traditionnelle du syntagme nominal (SN), puisque certaines expressions du langage parlé (et aussi de l'écrit), échappaient aux descriptions habituelles et réglementaires données pour la SN de la langue basque. L'idée que nous avançons repose sur l'observation de deux variables,

d'une part on détecte le comportement des déterminants du syntagme, et d'autre part on vérifie l'ordre des éléments qui forment ce syntagme. Si l'on s'en tient à ces deux variables, on propose le classement suivant: 1) syntagmes traditionnels, 2) syntagmes scindés, et 3) syntagmes dont l'ordre des éléments est altéré.

Dans ce travail on insiste surtout sur les deux dernières typologies. Dans le cas des syntagmes scindés, l'élément qui bouge de sa place d'origine déplace avec lui le déterminant qui correspond au syntagme entier. Dans ce genre de syntagmes, il existe donc, plus d'un déterminant (qui dans le paramètre de l'analyse classique n'a pas eu d'explication convaincante). Dans l'autre genre de syntagmes, par contre, il existe un mouvement des éléments qui composent le syntagme, mais il n'y a qu'un déterminant, et pas deux comme dans la typologie antérieure, ce qui nous mène à postuler l'existence d'un autre genre de syntagmes différenciés des antérieurs.

#### ABSTRACT

The main aim of this piece of research is to open new working possibilities for traditional noun-phrase analysis, since certain expressions from the spoken (and also written) language are not duly covered by the usual descriptions and rules laid out for the noun phrase in the Basque language. The suggestion is principally based on the observation of two variables: first of all, the behaviour of the determiners in the noun phrase is detected; and second, the order of the parts making up this noun phrase is checked. Basing ourselves on these two variables, the following classification is proposed: 1) traditional syntagmas, 2) split syntagmas, and 3) syntagmas with altered part order.

Special attention is paid in the present article to the last two types. In the case of split syntagmas, the part which shifts from its position of origin moves the determiner of the entire syntagma in so doing. More than one determiner exists, therefore, in this type of syntagma (something which classical analysis has been unable to explain satisfactorily). In the other kind of syntagma, however, there is a shift in the parts which go to make up the syntagma, but only one determiner appears and not two as in the type just described, leading us to postulate the existence of another type of syntagmas which are different from the previous ones.